

Arrasate

P R E S S

ARRASATE • ARAMAIO / Egubakoitza / 2005eko martxoaren 18a / 709. zenbakia



ISA CASADO ETA LEIRE EZPELETA PIERRA MENTAN

Europar dagoen mendiko
eskiko lasterketa gogorrean

ORAIN ETA HEMEN: UMEZAINZA HANDITZEN/6 • KULTURA: DANBAKA BIRA/10

ARGAZKIA: JUAN PRECIADO

OSASUN GIDA/20

GUARDIAKOFARMAZIAK

- EGUBAKOITZA, 18**
Irizar, Erguin 11..... 943 79 12 39
- ZAPATUA, 19**
Amezua, Santa Marina 32.... 943 79 09 74
- DOMEKA, 20**
Español, Araba etorb. 14..... 943 79 18 65
- ASTELEHENA, 21**
Ruiz, Maala 31..... 943 79 14 09
- MARTITZENA, 22**
Zabala, Zarugalde 42..... 943 77 16 30
- EGUAZTENA, 23**
Azkoaga, Ferrerías 1..... 943 79 15 15
- EGUENA, 24**
Azkoaga, Iturriotz 17..... 943 79 79 99
- EGUBAKOITZA, 25**
Irizar, Erguin 11..... 943 79 12 39

TELEFONO JAKINGARRIAK

- ERIETXEAK**
Arrasateko Eskualde Ospitalea... 943 03 53 00
Iguatorialdea..... 943 71 26 91
Santa Agedako Ospitalea:
Gizonak..... 943 79 39 00
Emakumeak..... 943 79 44 11
Buru osasunerako etxea..... 943 79 90 11

- LARRIALDIAK**
SOS Deiak..... 112
Gurutze Gorria..... 943 76 55 76
DYA..... 943 78 71 57

- ANBULATORIOAK**
Guardiako medikua..... 943 46 11 11
Astelehenetik
egubakoitzera..... 17:00etatik 08:30era
Zapatuetan..... 14:00etatik 08:30era
Asteburuetan eta jaiegunetan... egun osoa

- Arrasate**
Astelehenetik
egubakoitzera..... 08:00etatik 17:00etara
Zapatuetan..... 09:00etatik 14:00etara
- Txanda hartzeko:
medikuntza orok. eta pediatria 943 03 52 50
 - Espezialitateak..... 943 03 53 11
 - Ikuskatzailea..... 943 03 52 52
 - Kanpoko kontsultak..... 943 03 53 11

- ANBULANTZIAK**
Gipuzkoako Anbulantziak..... 943 45 87 44

- ERTZAINZA**
Arrasate..... 943 79 71 99

- SUHILTAILEAK**
Udal taldea..... 943 79 09 00
Udal taldeko suhiltzaileburua..... 943 79 20 72
Zubillagako Eskualde Parkea..... 088

- MATXURAK**
Urak (Udal Zerbitzua)..... 943 79 09 00
Argindarra (Iberduero)..... 943 12 01 62
Gasa..... 900 40 05 23
943 79 78 44

- GARRAIOAK**
Taxiak..... 943 79 12 22
PESA..... 902 10 12 10

- HIRUGARREN ADINEKOENTZAKO ETXEAK**
Iturbide egoitza..... 943 79 72 11
Abaroa erretiratuen egoitza... 943 79 81 57

- MONTEIRON LIBURUTEGIA**
Monterron..... 943 77 01 05

MEZAK

San Juan parrokia	San Andres eliza
Zapatua	Zapatua
19:00 (elebiduna)	19:00 (elebiduna)
Domeka	Domeka
09:00 (elebiduna)	10:00 (gaztelaniaz)
11:00 meza nagusia (euskaraz)	11:00 (euskaraz)
12:30 (elebiduna)	12:30 (gaztelaniaz)
San Frantzisko eliza	Santa Marinako eliza
Zapatua	Zapatua
19:00 (elebiduna)	19:00 (gaztelaniaz)
Domeka	Domeka
09:00 (euskaraz)	11:00 (gaztelaniaz)
10:00 (elebiduna)	
12:30 meza nagusia (elebiduna)	
19:00 (elebiduna)	San Isidro eliza
Uribarri parrokia	Zapatua
Zapatua	19:00 (euskaraz)
19:00 (elebiduna)	Santa Teresa eliza
Domeka	Domeka
11:30 (euskaraz)	12:30 (elebiduna)
12:30 (gaztelaniaz)	

OHARRAK

ERREDAKZIOAREN ZUZENKETA

Joan den astean iragarri genuen Arrasateko hilerriek ez dutela jaiegunetan zerbitzurik emango. Horren barruan, zapatuak ere aipatu genituen. Eta horren harira, zuzenketa egin beharrean gaude: zapatuetan izango da zerbitzua. Domeka eta jaiegunetan, berriz, ez.

BAKEAREN ERROMESALDIA

Bihar, zapatua, bakearen aldeko erromesaldia egingo dute. Arantzazutik Oñatira joango dira. Arrasateko autobusak 08:30ean irtengo dira, Abaroatik. Txartelak San Andresko Muruamendiaren gozotegian eta Zabaleta lurrindegian salgai daude, baina bukatzeaz daude.

DOKE TXAPELKETA

Domekan, hilaren 20an, 21. Gazte Mailako Doke Txapelketa egingo dute Kondekuan, 11:00etan. Hilaren 25ean, berriz, 25. Elkarteen Doke Txapelketa egingo dute leku berean, 10:00etan. Biak hala biak SUDCek antolatuta.

BERTSO-UDALEKUAK

Txatxilipurdik bertso-udalekuak egingo ditu uztailen. Astelenean, martxoaren 21ean, zabalduko dute izenematea.

AEDren AGENDA

14. KORRIKAREN LAGUNTZAILE EGITEKO AUKERA

Korrikaren laguntzaile izan gura duenak AEDra jo dezake. 12 euroren truke, Korrikari lagundu eta deskontuak izango ditu.

URBANOEN ORDUTEGIA

Gorostizatik Eroskira (2 Linea)
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00.
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Arimazubi, Alecop, Uribarri, San Andres, Garibai, ospitalea, Biteri, Legarre, Musakola eta Eroski.

Eroskitik Gorostizara (2 Linea)
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35.
IBILBIDEA: Eroski, Joan Bengoa, Santa Teresa, Cristo Obrero, Obenerreka, Makatzena, J.L. Iñarra, San Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguin A eta Gorostiza.


Gorostizatik Eroskira (1 Linea)
08:30, 09:30, 10:30, 11:30, 12:30, 13:30, 14:30, 15:30, 16:30, 17:30, 18:30, 19:30, 20:30 eta 21:30.
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Zarugalde, Muxibar, San Frantzisko, J.L. Iñarra, Makatzena, Obenerreka, Cristo Obrero, Galizia, Joan Bengoa eta Eroski.

Eroskitik Gorostizara (1 Linea)
08:05, 09:05, 10:05, 11:05, 12:05, 13:05, 14:05, 15:05, 16:05, 17:05, 18:05, 19:05, 20:05 eta 21:05.
IBILBIDEA: Eroski, Musakola, Legarre, Maala, Ospitalea, Garibai, San Andres, Arimazuri, Alecop, Uribarri, Erguin A eta Gorostiza.

ORAINDELA 10URTEARRASATEN

Gipuzkoako Trialsin Txapelketa, Udalan

Orain dela hamar urte, Gipuzkoako Trialsin Txapelketa egin zuten gaztetxoek Udalan. 9 urte-tik 14 urte arteko hainbat neska-mutilek esku hartu zuten, eta oso ikuskizun bikaina eskaini zuten. Gazte oso trebeek erakustaldia egin zuten, eta herritar asko batu ziren horiek ikustera.



BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru



Leuntasuna
—Arek estau leuntasun askorik ibiltzen umiekin..

JON IRAEGI

HAUGIROA!

MINIMOA Eguaztena, 9	-4 °C
MAXIMOA Eguaztena, 2	23 °C
ASTEKO EURIA (l/m²)	0 L

	Max.	Min.	Euria
Eguaztena, 9	11 °C	-4 °C	- l/m²
Eguena, 10	12 °C	4 °C	- l/m²
Egubakoitza, 11	12 °C	0 °C	- l/m²
Zapatua, 12	19 °C	-3 °C	- l/m²
Domeka, 13	18 °C	-2 °C	- l/m²
Astelehena, 14	21 °C	1 °C	- l/m²
Martitza, 15	23 °C	2 °C	- l/m²

San Juan auzoan jasotako datuak

ARRASATE IRRATIA FM 107.7



Indiara bidai, Kiotoko protokoloa eta Korrika 14 izango dugu berbaigai asteko gainbegiratuan

Ibili munduan geltokian, Indiara hurbildu da 107.7ko autobusa. Jon Eskobales aretxabaletarra izan dugu gidari. Bidaia bitxia izan zen; izan ere, Eskobales gurgildun aulkian dago, orain dela bi urte istripua izan zuenetik. Sekulako ikasgaia eman zigun Jonek; asteburuko hitzorduan berreskuratu dugu solasaldia.

Horretaz gain, Pello Zabalak Kiotoko protokoloaren gainean kontatutakoak errepikatuko ditugu. Eta zelan ez, aste honetan Korrika 14 ibarrean izan dela

aitzakia hartuta, Erdu-AEK eskaltegiko Alain Ulazia irakaslea, eta Jonan Sanfelices eta Eli Valladolid ikasleen bisita ere asteko gainbegiratuan izango duzue.

DATORREN ASTEAN, OPORRAK

Aste Santua gainean dugu; egu-netik aurrera oporrak hartuko ditu Arrasate Irratiak. Apirilaren 4an itzuliko gara zuzeneko saioekin. Baina oporretan ere, irratien konpainia izango duzue: elkarrizketa bildumak eta musika aparta izango duzue entzungai.



ASTEKO PROGRAMAZIOA

ZAPATUA
10:00 Asteko gainbegiratu: Jon Escobales, Indiako bidaiari; Pello Zabalak, Kiotoko protokoloaren gainean; AEK-ko irakasle eta ikasleak...

DOMEKA
10:00 Asteko gainbegiratu.

ASTELEHENETIK EGUAZTENERA
09:00-11:00 IGO AUTOBUSERA!
Albistegia.
Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landá).
Elkarrizketak.
Zozketak, e.a...

11:05 Musika

12:05 Arrasate Irratiko albistegi laburra.

12:20 Zorion agurren tartea.

12:30 Izarren ordua: abesti ezagunak

13:00 Euskadi Irratiko albistegia.

14:00 IGO AUTOBUSERA! (errep.)

17:00, 19:00, 21:00, 23:00 Arrasate Irratiko albistegi laburra.

ASTE SANTUAN

10:00 Elkarrizketa bilduma

KALEINKESTA/ Hamengo erretirauek ezetza emun dutzie Diputaziñuek egindako eskaeriei.



MARIA FERREIRA
Langillie



IÑAKI GANTXEGI
Langillie



SERAPI ARANTZABAL
Erretiraue



OIHANA MARKINEZ
Langillie



UNAI GARTZIA
Langillie



JESUS MARIA LOZA
Langillie

Ondo pentsetan jat. Hamengo erretirauek askotan eskatu daue garraio publikuetan deskontuek, eta kasurik be ez dutzie egin. Eta oin, Diputaziñue laguntzeko eskaketan?

Makiña bat erretirau dau, deskontuek eskertuko leukiene, pensio txikiñekin geratu dielako. Eta oin arte Diputaziñuek ez badutzie kasurik be egin, presionetako modu ona da.

Beteranuen Munduko Atletismo Txapelketie antolaketan laguntzeko? Ondo egin daue hamengo erretirauek ezetz esaten, eurak aspaldi dabitz-eta gauzak eskaketan.

Ezetz esatie gogorra da, baiñe motibuekin esan daue. Oin arte erretirauek ibilli badie deskontuek eskaketan, eta iñork ez badau ezer be egin, oin zertan dator Diputaziñue?

Neuri oso ondo pentsetan jat, okasiñue aprobetxau egin biher da. Presiñue sartzeko modu ona da, eta orduen konturetuko die Diputaziñokuek hamengo erretirauek hasarre dauzela.

Oso ondo, burrukan beti!!! Diputaziñuek garraio publikuen deskontuek ipintteko ezer ez badau egin, zertara juen biher die oin atletismo txapelketie antolaketan? Ondo egin daue.

TXALOAKETATXISTUAK



TXALOAK HERRITARREI, ELKARTEEI ETA ENPRESEI Korrikaren aldeko Arrasateko batzordeak aditzera eman du Arrasateko herritarrei, elkarteei eta enpresei eskerrak emateko beharrean dagoela. Korrika batzordeak hartu du Korrikaren gaineko antolaketa lanak egiteko ardura, eta goraiatu egin du herriko elkarteek, enpresek eta oro har herritarrek ekimen horri eman dioten babesa.

ASTEKODATUA

1.478

SINADURA BATU DITU AUKERA GUZTIAK TALDEAK

Joan den astean, Aukera Guztiak plataforma EAeko hauteskondeetara aurkeztu ahal izateko sinadura batzea egin zuten. Udaltxean eta notariotzan 1.478 sinadura batu zituzten.

BESTEKEESANA



Lotsagarria iruditu zait Bilbon irakasle batzuek itxialdia egin izana. Biktima papera hartuz, lanpostu gabe

geratzear daudela diote eta beraien adinarekin zaila dela beste lan bat lortzea. Larrua, behintzat, sendo dute beraien adinarekin; izan ere, urteak igaro ostean irakasle moduan ez dute interesik izan ofiziala den hizkuntza bat ikasteko. Liberazioak ere izan dituzte, soldata osoa kobratuz, eta ez dute asmorik izan euskaraz ikasteko. (...) Errealitatea irakasle horiek diotenaren guztiz bestelakoa da, eta euskara da hezkuntzan baztertzen den hizkuntza. Euskal Herriko hiru ikasletik bi ez dira euskalduntzen, 16.000 inguru dira urtero (...). Zuek ez zarete ezereen biktima, biktimak euskaraz ikasteko eskubidea zapaldu zaien ikasleak dira"

ENEO BARBERENA
'GARA'/05-03-08

HERRITARRENBERBAK/ Aitor Zabalo



Udaberria

O rain dela hamabost bat urte norbaiti entzun nion bere lan berriak urtarotaz konturatze-ko balio izan ziola. Lan hori hiritik kanpo zen eta orduan hasi omen zen konturatzen eta baloratzen udaren, udaberriaren, udazkenaren eta neguaren traza.

Agian niri apur bat gehiago kostatu zait, baina bukatzen ari den negu honek horretarako balio izan didala esan behar dut. Oraingoa, gainera, neguak ia bere sasoi osoa iraun du (nahiz eta azken aste honetan tregua apur bat ematen ari zaigun). Gogoratzen dut lehenengo elurtea (gerokoak ikusita, elurte txikia) abenduaren 26an izan zela, eta azken elurtea martxoaren 6an izan da.

Herritarrek esaten dabilta horrelako negu gogor batek uda oso beroa ekarriko duela, orain dela bi urte izandakoaren modukoa-edo. Pellok esan duela, Urbiako artzainak dioela... horrelako asko entzuten dira. Ez dakit zelako uda

egingo duen, baina udaberriaren zain nagoela egia da. Aurten, aurreko urteetan ez bezala, ez dut lorerik ikusi Seber Altubeko plazako zuhaitzetan. Penaz ikusten nituen aurreko urteetako loreak, banekien eta izozteak etortzeaz zeudela, baina hor agertzen

ziren, alaiarri. Oraingo urtean atzeratuta dabilta, edo agian bere garaian datoz. Ez dakit.

Sumatu dudana da herritarrek kalera irteteko gogoia dutela. Eguraldi epela egiten hasi bezain azkar jende

dezente gehiago ikusi dut kaletik. Orain, gainera, argitasun ordu bat gehiago izango dugula-eta, gehiago disfrutatu-ko dugu.

Azkenean konturatu naiz negu honetatik gehien gustatu zaidana dela udaberria etortze-ko gogoia piztu izana. Udaberriaren kolore ederrak ikusi eta dastatzea. Gauza berezirik ez, baina egunero disfrutatu daitekeenaz gozatzea. Eta bada, udaberria udaberri datorren.

"Negu honetatik gehien gustatu zaidana da udaberria etortzeko gogo handia piztu izana"

ETABARRUAN...

ORAIN ETA HEMEN /7

GAZTEAK /12

ZAHARRAK /14

Arreta emateko

Herritarrei udal kontuetan arreta emateko bulegoa sortzeko aurreneko pausoa egin du Udalak.

Lankide programa

Jaurilaritzak eta GKEek abian jarri dute gazteek Hirugarren Munduan laguntzeko programa.

Gotzaindegiak sinatu du

Gipuzkoako Gotzaindegiak sinatu du San Isidro alboko elkarteak uztoko hitzarmena.

Arrasate

Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE
Tel.: 943 71 25 11
Faxa: 943 71 23 89
Posta-e: arrasatepress@goiena.com

ZUZENDARIA
Iker Barandiaran

ERREDAKZIOA
Xabier Urtzelai
Ubane Madera

MAKETAZIOA
Alex Azkarate

ZUZENTZAILEA
Sergio Azkarate

PUBLIZITATEA
Natali Martinez
Imanol Elortza
Amaia Mundinano

ADMINISTRAZIOA
Agurtzane Gainzarain
Ane Bereizibar
Iratxe Bengoa

BANAKETA
Marta Leturia

LEGE-GORDAILUA
55-1124/88

ISSN
0214-4654

TIRADA
7.350 ale

ARRASATE PRESS / TXIRRITOLA • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurilaritzako
Kultura saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Arrasateko
Udala



Aramaioko
Udala

ASTEABIHITZETAN

Emakumeek egindako produktuak, plazara

Zapatu goizean, Emakume Kontseiluak antolatuta, emakumeek egindako produktuekin azoka egin zuten Herriko Plazan. Guztira 50 postu eta denetariko salgaiak ipini zituzten: bitxiak, lore lehorrekin egindako eskulanak, larrukiak, arropak, janariak...

Erosi eta ikusteko aukeraz gain, Ekin Emakume taldekoek hamaiketako egiteko modua eskaini zuten. Antolatzaileek balorazio baikorra egin zuten: "Postu guztiak bete, giro polita sortu eta emakumeek egindako gauzak erakutsiz, jendeari zer baitetan gabiltzala jakinarazi diogulako".

Mundukidekoak Arrasaten

Mundukideren truke programako partaideak hitzaldiak ematen ibili dira egunotan. Astelehenean Monterronen izan ziren, eta martitzenean Aretxabaletan egin zuten berbaldia. Martitzenean, gainera, euren bisita izan genuen ARRASATE PRESSko egoitzan.

Besteak beste, Mexiko, Nikaragua, Kuba, Honduras eta Argentinako lagunak osatu zuten talde hori. Berbaldietan, herri horietako egoeraren berri emateaz gain, hizlariak euren proiektuak ere aurkeztu zituzten.

Ate irekien jardunaldia MUN

Mondragon Unibertsitateko Enpresa Zientzien Fakultateak ate irekien jardunaldia egin zuen zapatuan. Etorkizuneko ikasleak, gurasoak eta eskoletako orientatzaileak izan ziren bertan. Eskolako ordezkariak titulazio bakoitzaren xehetasunak eman zizkieten, eta baita euren zalantzak argitu ere.

Horrekin batera, bertara gerturatutakoek instalazioak ikusi ahal izan zituzten. Ekainera bitartean, ate irekien 19 jardunaldi egingo ditu Mondragon Unibertsitateak.



170 gazte inguru zuhaitzak landatzen

Joan den egubakoitzean, Zuhaitz Egunean, Arrasateko hiru ikastetxetako 170 gazte inguru Garagartzaraino hurbildu ziren, zuhaitzak landatzera. Guztira, 150 gereziando, 10 urritza, 10 gorosti, 10 otsalizar, 15 lizar eta beste 15 haritz landatu zituzten. Ikasle arrasatearrek bi ordu inguru egin zituzten zuhaitzak landatzen.



USTEAKUSTE/ Iker Barandiaran

Ibaiaren ibilbidea

Korrika daukagu askok aspaldi honetan ahotan. Ez da gutxiagorako! Euskararen aldeko ekimena da, eta gainera modu oso originalez jende askoren inplikazioa lortzen du.

Honako hau irakurri orduko Arrasate eta Aramaiotik pasatuta egongo da, baina domekara arte ez da bukatuko. Orreagan jaio eta Bilbon itsasoratuko den

ibaia dugu Korrika. Askok edaten dugu ur horretatik, euskaratik, eta emaria ere ematen diogu. Ibai horrek ibilbidean aurrera egin ahala, indarra hartuz joaten da eta Bilbora heldu orduko, olatu handi bat bilakatu da.

Bartzelonan, Londresen eta atzerriko beste hainbat lekutan ere ospatuko dute Korrika. Hala egin izan dute

azkeneko urteotan, eta leku horietan ere gero eta arrakasta handiagoa dauka. Euskaldunok irudimentsuak garenaren eredu ere bada.

Bitartean, Euskal Herrian gehien saltzen duten egunkariak ez dute Korrikaren gainean ia ezer argitaratzen. Dirudienez, itxurak zaintzeko ere ez zaie interesatzen euskararen alde egitea. Eurek erabaki beharko dute olatu handi horren kontrakorrantean joateak merezi duen edo ez.

ASTEKOIRUDIA



GAZTETXOENK ERE GOGOZ EGIN ZUTEN KORRIKA EUSKARAREN ALDE

Korrika erraldoia eguzten iluntzean pasa zen Arrasateko kaleetatik. Ziur joan den urtean beste-ko oihartzuna izango zuela. Guk, horren ordez, gaztetxoenen Korrika Txikia harrapatu genuen iruditian. Azkeneko urteotan, herriko ikastetxe guztietako ume eta gaztetxoek ekimen hori egiten dute.

Korrika etortzen den egunean, eta parte-hartzea izugarria izaten da. Ez hori bakarrik: ikustekoak zirenen lasterka egin behar zutenei animatzera joan zirenen 2 eta 3 urte arteko umeen inbidia aurpegiak. Eurek ere errepidera irten gura zuten, baina itxaron egin beharko dute. Badu etorkizuna euskarak! /I.B.



Pando
Errotuloak

Gipuzkoa etorbidea 6
(Legarre pabiloia)
Tel.-Fax: 943 79 79 70

Argidun kartelak

Ibilgailuak

Stand-ak

Itsasgarriak

Biniloa

Seinaleak

Lonak


Erliebedun hizkiak

UGARTE

Industria
hornidurak

San Andres auzoa 2. 5-6
Pab.
Tel.: 943-71 21 41
Faxa: 943-71 21 40

Garagardo ona, giro hobea



TXIRRITA

Taberna

Gesalibar auzoa. Tel.: 943 79 10 35



ARIZMENDIKO ETA MU-KO KOADRILA GALANTA ELKARTU ZEN GOURETTEN

Joan den astean inguruko lagunekin bete zen Frantzia aldeko Gourette eski estazioa. Alde batetik, Arizmendik antolatuta 60 ikasle eta guraso joan ziren eskiatzera. Eta, Mondragon Unibertsitateko 50 lagunetik gorako taldea ere estazio berera joan zen. Arizmendik egiten duen horrelako hirugarren irteera da, eta familia giroan asteburua eskiatzen pasatzea zen helburua.



ARRASATEKO GAZTETXOENEK ERE OSPATU ZUTEN MARTXOAREN 8A

Arrasateko ludoteketako 100 gaztetxo inguru jo eta su ibili ziren Emakume Langilearen Egunerako ekintzak antolatzen. Ludotekako arduradunek azaldu digute gaztetxoek denetik egin zutela: emakumeen inguruko hainbat lelorekin egindako txapak; amendako, amonendako eta hurbileko emakumeendako postalak; panel informatiboak, hainbat herrialdetako emakumeen argazkiekin egindako muralak...



ETB2-KO 'PASALO' SAIOAN IZAN ZIREN IBARREKO ERRETIRATUAK, PROTESTAN

Debagoieneko erretiratuen elkarteko ordezkari Juanita Zabalo, Jose Ramon Petreñas eta Jose Riviere ETB2 telebista kateko *Pasalo* saiokoekin izan ziren martitzen goizean. Ibarreko erretiratuek garraio bide publikoetan dituzten laguntzarik ezak salatu zituzten. Horrekin batera, Donostian egingo duten Munduko Atletismo Txapelketaren gainean ere egin zuten berba. Izan ere, txapelketa hori antolatzen laguntzeko Diputazioak erretiratuei laguntza eskatu die, eta hemengo erretiratuen erantzuna izan da ez daukatela laguntzeko asmorik.



SAGARDOTEGIETAN, TXULETAK BEHARREAN OILASKOAK HASI DIRA EMATEN

Joan den zapatuan, ezkon aurreko agur bazkaria egin zioten Sergio Azkarate *Pollo*-ri. Egia esan, gaitzizen horrekin koadrilakoek ez zuten larregi pentsatu behar izan. Oilaskoz jantzi zuten ARRASATE PRESSgo zuzentzailea, eta sagardotegira joan aurretik, Eroskin ibili zen, oilaskoen gaineko propaganda banatzen. Tolosan egin zuten bazkaria, eta Eibarren parranda. Ah, eta jakin, Eroskin banatutako propaganda eraginkorra izan zela, bat edo bestek deitu zuen-eta oilasko eske. Saiok, behintzat ez du goserik pasatuko. Zorionak bikote!!!



ZAHARBERRITZEAK
PVC, ALUMINIOA, EGURRA

Erakusketa eta biltegia:
Kale txiki 3 behea (Musakola)
Tel. eta faxa: 943 77 11 20

Metal aroztegia eta PVC
Leihoak eta itxierak

Egur aroztegia
Leihoak
Ateak
Armairu enpotratuak
Armairu-fronteak
Mota guztietako zoruak
Lixatua eta bernizatua

Osagarriak
Neurrira egindako alfonbrak
Gortinak, mahaiak eta aulkiak

Monte
taberna

Maalako errabala 2
Tel.: 943 79 20 56

Sili Sili

Martxa eta estilo handiko arropa

Iturriotz, 9 • ARRASATE • Tel.: 943 79 81 82

HIRIGINTZA/Lanak Umezaintzan

Umezaintza goitik behera berritzeko lanak hastear

UBANE MADERA

Laster, Umezaintza berritzeko lanak hasiko dituzte. Gabonak ezker, San Josepe inguru hartan ez da umerik ibiltzen, Uribarrira eraman zituzten-eta, lanak noiz hasi zain. Orain, Udalaren baimena jaso dute; beraz, berehala hasiko direla esan digute ikastolakoek.

Umezaintzako barruko alde guztia bota egingo dute eta berria egin, gelaz gela eta solairuz solairu. Helburua da 2003an Hezkuntza Sailak 0-3 urteko umeen hezkuntzaren gainean ezarritako legea betetzea. Eta horretarako ez da

nahikoa berrikuntza lan soilak egitea; ikastolako ordezkariak adierazi digutenez, Umezaintzak gaur egun duen espazioaren banaketak ez du uzten legearekiko egokitzapen hori behar bezala egiten; horrenbestez, beharrezkoa da eraikina barrutik zeharo botatzea. Hala, hori aprobetxatu, eta berritasun ugari egingo dituzte, tartean, igogailua ipiniko dute, bi solairuak lotzeko.

Horrekin batera, Umezaintzako asmoa da Intxausti pabilioia aprobetxatu (ikastolaren parean dagoena) eta jantokia, sukaldea, gurasoendako gela... eta bestelako zerbitzuak han eraikitzea. Era berean, Umezaintzaren inguru

guztia egokitu egin gura dute, arrapalak, oinezkoen pasabidea-eta egiteko, zailtasunak dituztenei eta erruberadun ibilgailuen erabilzaillei bidea errazteko.

BAIMENA, LEHENENGO ZATIRAKO

Hain zuzen ere, Udalak oraingo astean eman dio baimena Umezaintzari berrikuntza lan guztiak egiteko. Baina oraingo, eraikinaren barruko aldeari dagozkion lanak egin ahal izango dituzte bakarrik. Udalak jakinarazi die, gainerakoak, Intxausti pabilioiari dagozkionak-eta, Egitamu Orokorraren arabera egin behar dituzte, aurrerago.


GABONETARAKO BUKATUTA

Gauzak horrela eta epeei begirata, Umezaintzako ordezkariak jakinarazi digute hasierako asmoa lanak irailerako bukatuta egotea bazen ere, burokrasiak eraginda, atzeratuta dabilzala. Eta horren ondorioz, orain, espero dutela Gabonetarako-edo erabiltzeko moduan izatea San Josepeko eraikina. Izan ere, ikastolakoek oporrak aprobetxatu behar izaten dituzte leku aldatzeko egiteko. Edozelan ere, lan guzti-guztiak bi urte barru-edo bukatuta egongo direla uste dute, eta oso gune polita geratuko dela, orain artekoa baino zerbitzu hobekoekin.

Bien bitartean, Umezaintzako umeek Uribarriko eskolan segituko dute. Haraxe eraman zituzten-eta Gabonak ezker.



Gabonak ezker, ez dago umerik San Josepe inguruan.



Hondeatzeko makina zintzilikatu, eta segi lanean

Zenbait lekutan lanak egiteko zailtasun dezente izaten dituzte. San Andresen gertatu zaie hori oraingo astean. Jausita zegoen pareta zati bat kendu behar zuten han, baina hondeatzeko makina bere kabuz ezin zen iritsi lanak egin beharreko lekura. Hala, kontu handiz, garabi baten bitartez makina zintzilikatu, eta eskudelaren gainetik pasatu behar izan zuten. Ikusgarria. /U.M.



Arrasateko
euskalgintza



Korrikaren bidean bat egitearren: eskerrik asko

ARRASATEKO EUSKALGINTZA

Oraingo astean iritsi eta pasatu da Korrika Arrasatetik. Oso une laburra izan da, Korrika badator eta badoa, arinetan. Baina atzean une zirrargarriak utzi ditu, eta antolatzaileek eskerrak eman gura dituzte horiengatik guztiengatik.

“Ez da erraza antolatu duguna antolatzea, pentsatzea ere! Baina AEK-kook ederki dakigu zer den Herri baten bultzada jasotzea eta laguntza sentitzea.

Korrika guztiak izan dira Arrasaten ikusgarriak, jendearen partehartzeak askotan antolatzaile orokorren bihotzetan, furgonetan datozenengan, hozkirria probokatzeraino. Hori horrela bada, pentsa ezazue zer sentitzen dugun bi urtean behin, pare bat hilabete baino gehiago antolakuntzan aritzen garenok. Emozioa handia da eta bihotzaren taupadak are gehiago bizkortzen dira arinetan joanda hunkituta baldin bazaude.

Euskal Herria euskalduntzen, ni ere bai da Korrika 14ri jarri diogun leloa, norbanakoaren konpromisoa eskatzeko, bakoitzak bere esparruan eta ahal duen mailan hartu beharrekoa. Orain dela urte batzuk izan genuen leloarekin batu nahi nuke nik aurtengo mezua, *1 eta 1 hamaika* ideiarekin, hain zuzen ere; hamaika lagun biltzen garenean sekulako uhol-

dea sortzeko gai garelako, ur tantoen ipuinean bezala, ibai bihurtu eta azkenik itsaso izatera iritsi.

Hori da, hain zuzen ere, euskarak behar duena, gu guztion tantoa, bultzada, ilusioa, esfortzua, lana; baina baita maitasuna, fereka, musua, laztana eta irria ere. Euskara biziko bada gudan bizi behar du, era eta maila desberdinetan jakina, baina guztiak garrantzitsuak.

Igandean bukatuko da korrikaldi erraldoia, Orreagan hasi zen eta horrenbeste kilometru egin ondoren, denon laguntzari esker Bilbora iritsiko da. Ez dakit zein izango den aurtengo barruan eraman dugun mezua, baina nik neuk honako hau jarriko nuke:

“Eskerrik asko pausoa aurrera emanez, *ni ere bai* esan duzuelako, *ni ere bai* ugari izan da *gu ere bai* eder hau osatzeko gai izan zaretelako eta *gu* hori zein indartsua den laster batean ikusiko dugu, gure banakako pausotxo egin ahala, guztion indarrak Euskal Herria euskaldunduko dugulako”



Badakitzu epaiketetan euskeraz eitteko eskubidie daukatzule?

Zure eskubide hau ez dala beteten?

EZ IXILDU!!!
ALDARRIKATU ETA SALATU

www.behatokia.org edo deitu

HIZKUNTZ ESKUBIDEEN
BEHATOKIA


EUSKARAREN
TELEFONOA 902 194 332

Herritarren arretarako bulegoa sortzeko lanean hasi da Udala

UBANE MADERA

Herritarren arretarako bulegoa sortu gura du Udalak. Herritarrei eman beharreko atentzioa leku bakarrean zentratzea da helburua. Orain, bulego hori sortzeko aurreneko pausoa egin dute: bulegoa antolatze-ko arduraduna aukeratzea.

Herritarrei arreta emateko bulego baten beharra dutela ikusi dute Udalean. Herritarrak leihatilaz leihatila ibili beharrean, bulego bakarrera joan daitezten Udaleko tramiteak egitera. Eta asmo horrekin, arduradun bat aukeratuko dute udaletxeko langileen artean, bulego hori antolatzen hasteko. Udaleko Barne Kudeaketa eta Kalitateko Saileko buru Jose Mari Erañak argitu digunez, "helburua da Udalaren zerbitzuak zentralizatzea eta erosoago jartzea (...) Bulego horretan ahalik eta zerbitzu administratibo gehien ematea". Gaineratu digu hilabete barru-



Oraindik ez dute erabaki bulego hori udaletxean edo handik kanpo izango den.

edo erabakiko dutela zein arduratuko den bulegoaren antolaketaz eta orduan hasiko direla bulegoaren nondik norakoak zehazten.

LEKUA, EGIN-BEHARREKOA... ZEHAZTEKO
Hain zuzen ere, hasteko, bulegoa non ipini erabaki beharko dute. Udaletxe barruan izan daiteke

(behealdean) edo udaletxetik kanpo (betiere, kalearen mailan). Eta gero, bulegoaren jarduna zein izango den erabaki beharko dute: zein tramite egin ahal izango diren...

Herri handietan ohikoak dira halako bulegoak; Eibarren eta Iruenen, esaterako, badute halakorik.

Zazpi lanpostu betetzea behar du Udalak, funtzionario izaerakoak

U.M.

Udalaren funtzionarioen lantaldean bete barik dauden lanpostuen zerrenda onartu dute. Guztira, zazpi lanpostu betetzea behar du Udalak. Burokraziak ezartzen duena bete eta gero, pentsatzen dute apiril-maiatz aldera hasiko direla azterketak egiten.

Honako lanpostuak bete behar ditu Udalak: arkitektoa, kirol teknikaria (AUKEArako), prebentzio eta gizarteratze teknikaria, saneamendu eta man-

tentze-lanetako teknikaria, erizaintzako diplomaduna (Iturbide egoitzarako), aisialdirako monitorea (Iturbiderako) eta AUKEAko mantentze-lanetako langilea.

Lanpostuen zerrenda hori Gipuzkoako Buletinera bidali du Udalak; handik Estatuko Buletinera bidaliko dute gero. Eta horren ostean eman ahal izango da lanpostuetarako izena. Udaleko Barne Kudeaketa eta Kalitateko Saileko teknikarien esanetan, apiril-maiatz inguruan hasiko dira azterketak egiten.

LANPOSTUAK BETETZEKO EZAUGARRIAK

Lanpostuen ezaugarriei dago kienez, arkitekto edo kirol teknikari izateko goi mailako titulazioa beharrezkoa da. Prebentzio eta gizarte teknikari, saneamendu eta mantentze-lanetako teknikari eta erizaintzako diplomadun izateko, berriz, erdi mailakoa. Aisialdirako monitorea izateko batxilergoa, LH-II edo balio-kidea nahikoa izango da eta AUKEAko mantentze-lanetako langile izateko, berriz, ofizioko langileak onartuko dituzte, baina eskolatze agiria beharrezkoa izango dute.

LABUR

Bihar, zapatua, osoko bilkura berezia egingo dute, apirileko hauteskundeengatik

Apirilaren 17ko hauteskundeetan hauteskunde-eskoletan egon behar duten herritarren izenak zozketatuko dituzte biharko osoko bilkura berezian. 09:00etan hasiko da. Betiko moduan 288 herritarren izenak aterako dituzte. Gero, martxoaren 26a baino lehen abisatuko diete, erreklamaziorik balute, egiteko.

Luzatu egin dute udan etorriko diren saharar umeak hartzeko izena emateko epea

Aste Santu ostera arte luzatu dute saharar umeak hartzeko izena emateko epea, martxoaren 31ra arte, hain zuzen ere. Intere- sa duenak udaletxera jo beharko du (943 79 09 00) edo NUBI elkar- tera deitu: 685 72 48 16/17/18 telefonoetara.

Eibar-Gasteiz autobidearen beste zati baten gaineko proiektua onartu du Diputazioak

Epeleko lotunearen eta Kaskonategiko biribilgunearen (Eroski-ko biribilgunea) artean, GI-627 errepidea bikoizteko proiektua onartu egin du Gipuzkoako Foru Aldundiak. 2.543.981,11 euroko aurrekontua zehaztu dute lanak egiteko, eta sei hilabeteko epea ezarri dute. Orain, lanak egiteko beharrezko lurak desjabetzen hasiko dira, presako prozeduraz. Lurron zerrenda udaletxeko iragarki taulan ipini dute, herritarrek ikus dezaten.

18/98+ taldeak sumarioaren gaineko hitzaldia antolatu du datorren martitzenerako

18/98 sumarioa dela-eta antolatu dute hitzaldia. Monterronen izango da, 19:30ean hasita. Hiru hizlari ekarriko dituzte: Mario Zubiaga (le- galaria eta 18/98+ taldeko kidea); Nekane San Migel (epaile arrasatear- rra) eta Natale Landa (18/98 sumarioan inputatua). 18/98+ taldeak dio epaiketa horiek karga politiko handia dutela eta horren ondorioz, guz- tiongan dutela eragina. Gaineratzen du mota horretako epaiketak ama- itu artean, Justiziaren independentzia eskatzen jardungo dutela.

Animalien gaineko legeak zehazten duena betetzen den edo ez zaintzen hasiko dira

Joan den urtearen amaiera aldera, herrian animaliekin modu ego- kian bizikidetzeko sentsibilizazio kanpaina egin zuen Udalak. Bes- teak beste, horren gaineko gida argitaratu zuen (jabeen ardurak zein- tzuk ziren, aseguru beharra... aztertze). Baita ere, zenbait kasu- tarako isunak zehaztu zituen; esaterako, kalean, plazetan edo parkeetan animalien kakak uzteagatik (30,5 eurotik 300,51 eurorai- noko isuna) eta txakurrak solte eramateagatik (300,51 eurotik 1.502,53 eurorainoko isuna). Orain, sentsibilizazio kanpaina bukatu ostean, Udalak erabaki du legeak esaten duena bete ezean, zehaztutako isu- nak ipintzen hasiko direla. Hain zuzen ere, Udaltzaingoa arduratu- ko da legea betetzen dela zaintzeaz eta dagozkien isunak ipintzeaz.



URONDO

Elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismoak
- * Proiektuak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak

Musakola auzoa 26. Kataide Industrialdea 5. pabilioia. 214 posta-kutxa • ARRASATE
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxa: 943 77 14 76

Josu Tornay: "Berba asko egin dugu, animuak behera ez egiteko"

XABIER URTZELAI

Euskal Herriko gorengo mailan lehiatu dira Arrasate San Andres Xake Taldekoak. Joan den astean jokatu zuten azken jardunaldia, eta aurreikuspenak beteta, ezin izan zioten mailari eutsi. Denboraldi aberasgarria izan dela esan digu Josu Tornayk, baina baita gogorra ere.

Orvinairen kontra jokatu zuten arrasatearrek azken jardunaldia, eta mailari eusteko aukerak izateko 4-0 irabazi behar zuten: "Bagenekien emaitza hori eskuratzeari oso gaitza izango zela, Orvina laugarrena izan da-eta. Hala ere, 3-1 irabazteko aukera izan genuen, baina azkenean berdinu egin zuten. Dena dela, 4-0 irabazita ere, gainontzeko taldeek egiten zutenari begira egon behar genuen".

Liga Txapelketa amaituta, bakarkako torneoak hasiko dituzte orain: "Xake bizkorreko torneoetan ondo moldatzen gara, eta torneo horietan denboraldia txukuntzen ahaleginduko gara; gainera, jokalariorik eskertuko dugu berriro ere irabazte sentitzea".

DENBORALDI GOGORRA

Ohorezko Mailan jokatu, Tornayk esan digu asko ikasten dela: "Nahiko denboraldi gogorra izan da, aurreko urtean ia partida guztiak irabazi genituelako eta aurreko alderantziz egin dugulako. Xakean, psikologikoki ondo egoteak balio handia dauka, eta partidak behin eta berriro galduta



GOIENKARIA

Klubak erreleboa ziurtatuta daukala dio Josu Tornayk, "gazteak indartsu datoz-eta".

gaitza da ondo egotea. Gainera, irabazteko genituen partida asko galdu egin ditugu kontrarioek guk baino esperientzia handiagoa zeukatelako, ez hobeak zirelako. Alde horretatik, nahiko lan txukuna egin dugula uste dut, eta klubak itxura ona erakutsi du". Bistan da txakur zahar asko dagoela kategorian horretan: "Datorren urteari begira kontu handiz ibili beharko dugu. Izan ere, behin baino gehiagotan gertatu da Ohorezko Mailatik jaitsi eta, irabazteko sena galduta, taldeek hurren-

go kategoriatik ere behera egin dutela. Lehenengo bost taldeen artean egon gura dugu".

POZIK EGOTEKO MODUAN

Taldeak duen etorkizunaren aurrean, Josu Tornay baikor azaldu da: "Jokalaria onak ditugu kategorian txikietan, taldeak harrobi ona dauka, eta oso pozgarria da hori. Gure konpromisoa da jokalaria horiek gure maila izan arte eurekin lanean jarraitzea, eta bi edo hiru urte barru gertatuko da hori".

FOTOKIROLA



Mondra, erabateko lasaitasuna emango dion puntuen bila

Mondrak Aste Santua baino lehenago lor ditzake erabateko lasaitasuna emango dioten puntuak. Josu Zubiaren mutirik Zarautzera joango dira asteburuan, eta martxoaren 24an jokatu dute Hondarribiaren kontra atzeratutako partidua (Atxabalpen, 11:30ean). Bi norgehiagoka horiek, baina, ez dira nolanhikoak izango. Oraingo asteburuko kontrario Zarautz laugarrena da sailkapenean (48 puntu), eta Hondarribia hamaikagarrena da (35 puntu), Mondra (38 puntu) baino bi postu atzerago. Eskatzea libre da, baina akaso, bi norgehiagokak irabaztea larregi eskatzea izango da. /X.U.

ZALDIBARARETOFUTBOLA

EMAITZAK

You Know! - Torpedo Musakola	5-3
AT Celaya - Saukelu Scream	3-9
Dribling - La Kuadrilla	7-5
Iriztu Tab. - Irati Taberna	8-6
Manhattan Pippol - Lasagabaster	7-4
Abokajarro - Ekipo Aldeano	7-8
Billy & The. - Fuxion	3-0
Betrayer - AC Surcos	6-5

PARTIDUAK

MARTXOAK 19, ZAPATUA. EPAILEAK

11:00: Iriztu - Billy & The Cowboys	Fuxion
12:00: Fuxion - AT Celaya	Billy & Yhe...
13:00: Tomahawk - You Know!	AT Celaya
16:00: Ekipo Alde. - Dribling	La Kuadrilla
17:00: La Kuadrilla - Manhattan	Ekipo Ald.
18:00: Saukelu - Goma2.	Manhatan PIP.

MARTXOAK 20, DOMEKA. EPAILEAK

11:00: Abokajarro - Torpedo M.	AC Surcos
12:00: AC Surcos - HLB 108.	Torpedo Mus.
13:00: Lasagabaster - Betrayer.	HLB 108

Deskantsua: Irati

SAILKAPENA

MULTZO BAKARRA	P	J
1. You Know!	21	13
2. Betrayer	20	13
3. Saukelu Scream	20	13
4. Irati Taberna	19	14
5. AC Surcos	19	14
6. Dribling	17	14
7. Lasagabaster	17	13
8. Iriztu Taberna	16	13
9. AT Celaya	14	13
10. Billy & The Cowboys	11	12
11. La Kuadrilla	10	13
12. HLB 108.	10	13
13. Fuxion	10	13
14. Goma2.	10	12
15. Abokajarro	9	13
16. Torpedo Musakola	7	14
17. Tomahawk	6	13
18. Manattan Pippol	6	13
19. Ekipo Aldeano	5	13



ASTEBURU BIRIBILAGORIK...

LEHENENGO POSTUAN EGOTETIK, LAUGARRENA IZATERA

Orain arte lehenengo postuan egon diren Iratikoeek fundamentu txikia erakutsi zuten joan den asteburuan. Hasteko, Iriztukoek 8-6 irabazi zieten, eta gero, Manhattan Pippol eta Lasagabaster taldeen arteko norgehiagoka epaitzea egokitzen zitzaienean, ez zuten lan hori egin. Orain jaso dute ordaina: bi puntuko zigorra, fidantza barik geratu dira, eta horrelakorik berriro egiten badute txapelketatik kanporatuko dituzte. Azken sailkatuak hori egitea ulergarria izan daiteke, baina liderrak? Antolatzaileei berehala eskatzen dizkiegu kontuak, baina taldeen partetik apur bat jartzea ere...

Hori ez da, baina, asteburuko zigor bakarra izan; Lasagabaster taldeko jokalaria batek bi partiduko zigorra bete beharko du, Manhattango bati lurrean zegoela ostioa emateagatik; lurrean zegoenak, baina, erantzun egin zion, eta hura ere zigortu egingo dute. Eta Saukelu Scream taldeko jokalaria batek ere norgehiagoka bateko zigorra bete beharko du, jarrera txarra izateagatik. Badirudi ez dela lehenengo aldia, eta txapelketan jarraitu gura badu, jokalaria horrek kontuz ibili beharko du.

KIROLAGENDA

JOKATZEKOAK

FUTBOLA

Zarautz - Mondra

Preferentea. Zapatuan, 16:30. Zarautzen.

Mondra - Ordizia

Ohor. Gazteak. Zapatuan, 16:00. Atxabalpen.

Soraluze - Arrasate

Gazteak. Zapatuan, 11:00. Ezozian.

Mutriku - Arrasate

Infantilak. Kopa. Zapatuan, 16:30. Mutrikun.

Mondra - Almen Aretxabaleta

Emakumeak. Domekan, 11:00. Atxabalpen.

Antzuola - Arizmendi C

Infantil F8. Zapatuan, 12:30. Antzuolan.

Aloña Mendi - Arizmendi B

Infantil F8. Domekan, 10:30. Oñatin.

EMAITZAK

FUTBOLA

Preferentea. Mondra - Zestoa... 2-0

Gazteak. Mondra - San Inazio... 4-3

Kadeteak. Eibar - Arrasate... 1-0

Emakumeak. Beti Ona - Mondra... 3-0

Infantilak. Arrasate - Ilintxa... 7-0

Infantilak. Arrasate - Eibartarrak... 5-1

Alebinak. Bergara - Arrasate... 2-1

ESKUBALOA

Lehen territ. AGR Arrasate - Donibane... 31-24

Gazteak. Mut. Gatz Museoa - Aitzuri... 17-15

Gazteak. Nesk. Zahara - Arrasate... 38-3

Infantil. Arrasate - La Salle... 25-24

MENDIKO ESKIA

Isa Casado: "Zapatuan argi geneukan Pierra Mentara ez ginela itzuliko, baina..."

Isa Casado eta Leire Ezpeleta pozik itzuli dira Alpeetako lasterketan egindako lanarekin; hori bai, probaren gogortasuna azpimarratu dute

XABIER URTZELAI

Europa mailan dagoen mendiko eskiko proba gogorrena gainditu du Arrasateko bikoteak. Eta bikotea diogu, lau egunetako proba gogor hori bikoteka egin dutelako. Gogorra izan da, baina uste baino lehenago itzuli zaie proba hori errepikatzeko gogoa, Isari bai, behintzat.

"Leirek ez dakit zer esango duen, baina joan den zapatuan proba amaitu genuenean oso argi geneukan ez ginela itzuliko; ni, baina, dagoeneko ez nago horren ziur", horixe erantzun zigun eguaztean Isa Casadok.

EMAKUMETAN, EUSKALDUN BAKARRAK

Arrasateko bikotea izan zen, emakumetan, Euskal Herriko ordezkari bakarra. Eta, emakumetan izan ziren hamabost bikoteen artean, arrasatearrak 14.ak sailkatu ziren. Hala, nahiz eta Euskadiko Kopan Arrasateko biak lehenengo postuan egon, bistan da gainontzeko herrialdetan zelako maila dagoen: "Lehenengo postuan geratu ziren emakumeak 23.ak izan ziren sailkapen orokorrean; dena esaten dut horrekin. Oso maila altua dago han, baina normala ere bada, etxetik irten eta eskiak janzten dituztelako. Igoeratan ez ziguten horrenbes-

teko aldea ateratzen. Hori bai, jaitzieratan igarri egiten da nork egin dituen urteak eta urteak eskiatzen, eta izotza dagoenean igartzen da gehien".

LAU ETAPAKO PROBA

Pierra Menta mendiko eski lasterketa lau probak osatzen dute: "Lehenengo proba erlojupekoa izan zen, eta 500 metroko desnibela zeukan. Proba motza izatean oso azkarra izan zen, eta gu ez gaude horretara ohituta. Hortaz, ezin esan proba guk gura genuen moduan hasi genuenik". (53 minutu lehen etapan).

"Bigarren etapan 2.400 metroko desnibela izan genuen, eta igotzerakoan, tarte handiak oinez egin behar izan genituen, eskiak motxilara lotuta. Jaisterakoan izan genituen komeriak; elurra ez zegoen batere ondo, eta izotz artean ibili ginen. Gero, baso moduko batean sartu eta bide estu batetik jaitsi behar izan genuen; hor ere nahiko txarto. Gainontzeko lehiakideek ere komentatu zuten jaitziera gogorra izan zela". (4 ordu eta 53 minutu bigarren etapan).

Hirugarren eguna lasaiago hartu zuten: "26 kilometro genituen aurretik, eta lasai ibili ginen. Igotzerakoan nik jarri nuen erritmoa, eta hobeto ibili nintzen. Gainera, jaitzieratan elurra aurreko egunean baino askoz ere hobeto



JUAN PRECIADO

Euskal Herriko bost bikotek hartu du esku aurtengo edizioan. Argazkian, Isa eta Leire beste lagun askorekin.

zegoen, eta gozatu egin genuen". (6 ordu eta 45 minutu hirugarren etapan).

Eta laugarren etapa izan zen politena, Grand Mont-era igoera: "Zerbait esatearren, Aizkorriko maratoian izaten den giroarekin alderatuko nuke. Herritik gindoazenean jende mordo zegoen txalo egiten, baina ibilbidean zehar ere jende asko zebilen animatzen, baita mendi tontorrean

ere. Oso sentsazio polita da, baina etapa hori ere gogorra egin zitzaigun. Igoera batzuk ez ziren txantxetako kontua; lasterkariak daukatena ematen dute proba horretan, eta erreza da mareatzea. Eta horrelako lekuren batean eroriz gero... Kontuz ibiltzea komeni zen". (6 ordu eta 2 minutu, laugarren etapan).

Lau egunetan 18 ordu eta 32 minutu egin zituzten Isa Casadok

eta Leire Ezpeletak eskiatzen, eta zorionez eguraldi ona izan zuten; "Eguraldi txarrarekin, pentsatu ere ez dut egin gura". Oraingo asteburuan Euskadiko Kopako laugarren jardunaldia badaukate ere, aurreko postuetan dauden bi lasterkari horiek ez dakite proba egitera joango ote diren; orain arteko hiru lasterketetan egin dituzten markekin, lasai egon daitezke.

FOTOKIROLA



Aste Santuan, dokea Kondekuan

Urtero moduan, aurtan ere Doke Txapelketa antolatu dute SUDCeok. Gazte mailako txapelketa oraingo domekan jokatu dute (11:00etan), eta dagoeneko 21. edizioa izango da. Alde horretatik, antolatzaileek Arrasateko gazteak gonbidatu gura dituzte, domekako proban esku hartzera. Eta, Arrasateko elkarte gastronomikoei egingo duten Aste Santuko txapelketa martxoaren 25ean egingo dute, Egubakoitz Santuan. 10:00etan hasiko da txapelketa, eta elkarteen arteko irabazleek, urtero moduan, Udaleko ordezkarien kontra jokatu dute. Ez dugu uste Udalak inoiz ere irabazi duenik, eta eurak dira urtero sardinak ordaintzen dituztenak. /X.U.

Arrasatekoen pilota partiduak, gaur, Uarkapen eta Elgetan

X.U.

Gaur, egubakoitza, Arrasateko pilotariak lana izango dute. Uarkapen Udaberriko Txapelketako pilota partidua izango da ikusgai, eta Elgetan Agirrek jokatu du, lau eta erdi barruan.

Gaur (20:00etan, Uarkapen), jokatu dute Arrasateko Uribarren eta Lazkano pilotariak Hernaniko bikotearen kontra. Udaberriko Txapelketako norgehiagoka izango da, eta Aitzol Lazkanok esan digu txapelketa horretan uste baino okerrago dabilzala, eta egoera horri buelta emateko asmoarekin kantxaratuko direla. Horrekin batera, Arrasateko infantil mailan daukan bikote sendoa ere orain hasiko du txapelketa hori, eta Gipuzkoako txapeldun izan eta gero, eurak izango dira bikote faboritoetako bat. Hala ere, badakite txapelketa gogorra

izango dela, kontuan hartzeko moduko kontrarioak izango dituztelako.

ELGETAKO ETB KANTXA TXAPELKETA

Eta gaur baita ere, Agirre arrasatearrak Elgetako lau eta erdi txapelketako lehenengo jardunaldia jokatu du Errazkinen kontra. 21:00etan hasiko da pilota jaialdia, baina arrasatearrak jokatu aurretik beste bi norgehiagoka izango dira. Hala, gutxi gorabehera, 23:00ak aldera jokatu dute Agirrek eta Errazkinen.

Uribarren ere txapelketa horretan dago, baina Aste Santuan jokatu du lehenengo partidua. Lazkanok eurekin entrenatzen du, eta zera esan digu 23 urte azpiko bi pilotari horien gainean: "Entrenatzen nahiko ondo ikusi ditut, eta euren maila erakusten badute kontrario gogor izan daitezke, biak dira-eta ezkertiarak. Hori bai, lehenengo norgehiagoka garrantzitsua izaten da".

Gaur, egubakoitza, Black Sheeps eta Heilin Tropek taldeak gaztetxean, Danbaka Biran

IKER BARANDIARAN

Danbaka Debagoieneko I. Musika Lehiaketa bukatu da, baina antolatzaileak saiatu dira lehiaketarako sailkatu ez ziren taldeei zuzenean jotzeko erraztasunak ematen. Kilometroen alde egindakoez gain, gaur, egubakoitza, emanaldia izango da gaztetxean.

Gaur, egubakoitza, egingo duten kontzertua AGAKOk (gaztetxe-ko batzarrak) eta Danbakako arduradunek antolatu dute elkar-lanean. Bergarako Black Sheeps eta Getxoko Heilin Tropek taldeek joko dute, eta 22:30ean izango da. Ibarreko musika-zaleek talde horien emanaldiak ikusi ahal izango dituzte. Eta bi talde horiek Arrasaten ezagutzera emango dira.

Bergarako Black Sheeps taldeko lau lagunak oso gazte hasi ziren —17 urterekin—, 2002an. Eta ordutik hona gogor jarraitzen dute abestiak idazten eta kontzertuak egiten. Josebak, baxua jotzeaz gain, abestu egiten du; Mikelek eta Julenek gitarra jotzen dute; eta Haritzek bateria.

“Hasi ginenetik gaur egunera arte, 30 bat kontzertu eman ditugu. Gehienak gaztetxeetan, baina Jam aretoan ere birritan jo izan dugu. Leku txikietan zein handietan guztia ematen dugu”, azpimarratu zuen Joseba abeslariak. Hitzak ere Josebak egiten ditu: “Sentimenduen gainekoak dira, pixka bat malenkoniatsuak eta anbiguoak. Ez dira oso zuzenak eta ingelesez egiten ditu”.

Musikari ez diote punk-rock ezta rock-and-roll etiketarik jarri gura. “Kantu gehienak gogorrak eta azkarrek dira”, azaldu zigun, “eta argi dago 70eko hamarkadako rocka eta bluesa oso gustuko ditugula, besteak beste: Led Zeppelin, Deep Purple, Sex Museum, Zen Guerrilla...”.



Zuzenean hainbat bertasio jotzen dituzte, eta 50 bat minutuko emanaldiak egiten dituzte. Laster abesti batzuk grabatzeko asmoa daukate.

ARTE EDERRETAN SORTUTAKO TALDEA

Heilin Tropek taldeak Getxon entseatzen du, baina taldekideak hainbat herritakoak dira. Taldea Donostiako bi gitarra jotzailek sortu zuten, 2001ean. Horren ostean, Aitor eskoriatzarrari (bateria) eta Santanderko Diegori (baxua) taldeari batzeko gonbidapena egin zieten. Laurak Arte Ederretako ikasleak ziren. Behin-behineko entsegu-lokalekin hasi ziren, baina, hala ere, astero batzen dira entseatzeko. Horren ostean, Berangon hartu zuten lokala, eta taldea egonkortu egin zen.

“Heilin Tropek asmatutako bi hitzen batuketa da”, azaldu zigun Aitor Lajarin eskoriatzarrak. “Zaila da egiten dugun musikari etiketak ipintzea. Psychorock izendatu dugu: rocka da, baina metal, grunge eta punkaren ukituak dauzka. Hiru taldekidek idazten ditugu abestiak, eta nork bere gustuak ditu”.

Orain arte ingelesez abestu dute, baina dagoeneko hasi dira abesti batzuk euskaraz egiten, eta Arrasaten aurkeztuko dituzte.



Black Sheeps taldekoek 70eko rocka eta bluesa dute gustuko. Heilin Tropek taldekoek, berriz, rocka, metala eta punka.

Nairobiarraren abenturak, Iztuetaekin

IKER BARANDIARAN

Aste Santuaren ostean, apirilaren 5ean, AEDk eta Topaguneak Josu Iztueta ekarriko dute Arrasatera, Kultur Errotaren barruan. Iztueta oso ezaguna egin zen, munduan zehar hainbat bidaiari exotiko egin zituelako Nairobiarra izeneko autobusarekin.

Eguraldi onarekin bat, AEDk eta Topaguneak Kultur Errotako ekimenaren hainbat ekitaldi antolatu ohi dituzte. Aste Santuaren ostean, diapositiba emanaldi interesgarria egingo dute.

Diapositiba emanaldiaren izena da *Nairobiarra, miloi bat kilometro lur azaletik*.


1980an Josu Iztueta eta lagun batzuek kamioi zahar bat hartu eta Tolosatik Kenyako hiriburura, Nairobiara, jo zuten. Hiru hila-

betuz Afrika zeharkatu eta han geratu zen, betiko, Donostiatik Hondarribiara arteko ibilbidea egiten zuen autobus hurra, Nairobiarra, hain zuzen ere.

1982an, mudantza kamioi zahar bat hartu eta etxe ibiltari bat prestatu zuten. Horrekin, Afrika iparraldean eta Europan ibili ziren, itsasontziz ozeanoa zeharkatu eta Kanadara joan ziren arte. Handik Alaska eta Atlantikoko bideak zeharkatu zituzten.

Euskal Herriko eta beste leku batzuetako hainbat lagunek izan dute aukera Nairobiarra autobusa eta beste garraio bide batzuk abian jarri zituzten lagun-taldearekin bidaiatzeko.

Izan ere, Afrika eta Amerikatik bidaiatzen zuten bitartean, beste autobus zahar batek Europan barrena hainbat bidaiari egin zituen. Horiek eta beste kontu asko azalduko ditu.



ELKARRIZKETA

DRONADAR/MUSIKA TALDEA

"Atzerriko folka eta Euskal Herriko musika tradizionala uztartzen ditugu"

IKER BARANDIARAN

Gaur, egubakoitza, Bilbo-ko Dronadar taldeak kontzertua egingo du 3.60 aretoan. Talde horrek Irlanda, Eskozia eta beste herrialde batzuetako folka eta Euskal Herriko musika tradizionala uztartzen ditu.

Zer esan gura du izen bitxi horrek? Eta noiz sortu zenuten taldea?

Izena bi hitzen batuketa da: *Drone* Eskoziako eta Irlandako gaitetatik dator eta adar, albo-karen adarretik. Horren bidez, esan gura dugu Euskal Herriko musika tradizionala eta beste herrialde batzuetako musika uztartzen ditugula: Eskozia, Irlanda, Quebec... 1995ean elkartu ginen, baina 1998ra arte ez genuen kontzertu askorik eman.

Zeintzuek osatzen duzue taldea? Lehendik beste talde batzuetan ibilitakoak zarete?

Gaur egun honako hauek osatzen dugu taldea: Shanti Basauri, gitarra jotzailea; Ivan Allue, haize-instrumentu jotzailea; Marian Palacios, ahotsa eta perkusio jotzailea; Estibaliz Ruiz, biolin jotzailea; Ricardo Fernandez, bateria jotzailea; eta Antonio Ortega, baxu jotzailea. Gutako gehienok beste talde batzuetan ibilitakoak gara, ez bakarrik folk eta musika zeltaren alorrean. Uste dugu hori egiten dugunaren emaitza igartzen dela. Hain zuzen ere, hainbat herrialdetako folka egiteaz gain, pop-rock eta jazz ukituak ere ematen dizkiegu kañtuei.

Zein helburu jarri zenuten taldea sortzerakoan?

Hainbat musika estilo fusio-natzea eta zuzenean jotzen ahalik eta ondoen pasatzea. Eta bete egin ditugula uste dugu.

Kaleratu izan dituzue zuen kantuok?

Iazko *Euskal soinuak* bilduman abesti bat kaleratu genuen. Horrez gain, 2003an, grabazio estudio baten sartu ginen hainbat kantu grabatzeko. Hainbat ustekabe direla medio, ez genituen kantu horiek argitaratu.

Izan zuen zeresanik horretan lehiaketa bat irabazteak?

Bai, hala da. Alde batetik, grabatutako lana atzeratu egin zitzagun. Baina, justu, sasoi horretan Sopuertako Mendebala musika lehiaketaren lehenengo edizioan esku hartu genuen. Parte hartu eta lehenengo saria jaso genuen. Zorionekoak gu! Saria izan zen disko bat grabatzea, eta kontratazioa Kap agentziarekin egitea. Kap agentziak Oskorri, Kepa Junkera eta punta-puntako beste talde batzuekin lan egiten du, eta



ARRASATEKO MUSIKA ESKOLA

Musika Eskolako batzar orokorra eta kontzertuak

I.B.

Eguaztenean, Arrasateko Musika Eskolak batzar orokorra egin zuen. Besteak beste, balantze ekonomikoaren, 2005-2006ko ekimenen eta egoitza berriaren proiektuaren gainean berba egin zuten.

Arrasateko Musika Eskolaren batzar orokorrean hainbat gai izan zituzten berba, eguaztenean: hain zuzen ere, batzarreko arduradunek eskolaren balantze ekonomikoa eman zuten; 2005-2006 ikasturterako egitasmo garrantzitsuenak aurkeztu zituzten; eta etorkizuneko Musika Etxearen proiektuaren gainean berba egin zuten, besteak beste. Udalak jakinarazi du eskola Saio-lango eraikineraren goialdean egingo dutela. Eta horixe eman zire-

ten aditzera batzarrera joan zirenei. Batzar orokorraren buketan, bi urtean behin egin ohi duten moduan, zenbait guraso eta irakasle aldatu zituzten arduragatik, nagusienak hartzeko. Horretarako, bozketa egin zuten.

ASTE SANTUKO KONTZERTUA

Bestalde, hainbat kontzertu antolatuko dituzte datozen egunetarako: gaur, egubakoitza, Aste Santuko kontzertua egingo dute. Musika Eskolan izango da, 18:30ean, eta hainbat instrumenturen soinuak entzuteko aukera izango da.

Horrez gain, astelehenean, hilaren 21ean, eskolako tronboi, bombardino eta tuba ikasleek emanaldia egingo dute eskolan bertan, 19:15ean. Ikasle ugari esku hartuko du, eta horien gutxienez arduraduna Iker Olazabal izango da.

"Sopuertako Mendebala musika lehiaketan lehenengo saria irabazi genuen"

ziur horrek mesede handia egingo digula.

Mendebala lehiaketak disko bat grabatzeko aukera eman zigunez, aurretik egindako grabazioa alde batera utzi genuen eta disko berria prestatzen hasi ginen. Horiek izan dira ustekabeak.

Zein grabazio estudioan eta zeinek grabatu duzue diskoa?

Arantzazuko (Bizkaia) Balea estudioan grabatu dugu, eta Oskorri taldeko Bixente Martinezek egin ditu ekoizpen lanak. Oso gustura gelditu gara emaitzarekin. Hemendik pare bat atera izango dugu diskoa esku artean. Zoritxarrez ezin izango dugu Arrasateran eraman. Mendebala lehiaketak berak diskoetxea sortu du

"Diskoa grabatu dugu, eta Oskorri taldeko Bixente Martinezek egin ditu ekoizpen lanak"

eta eurak arduratuko dira lan hori argitaratu eta banatzeaz.

Zer-nolako kontzertua egingo duzue Arrasaten?

Abesti instrumentalez eta abestutakoez osatutako emanaldia egingo dugu. Euskaraz abesten dugu, baina badugu salbuespen bat: kantu bat ingelesez egiten dugu, Ingalaterrako abesti herrikoi bat delako eta jatorrizko hitzak errespetatu ditugulako.

Eskoziako, Irlandako eta beste herrialde batzuetako doinue-tan oinarritutako folk kantuak jotzen ditugu, eta baita Euskal Herriko kantu tradizionalak ere: *Ziburutik Sarara*, *Mari trapu zaharra*...

Zuzenean jotzea oso gustuko dugu eta dibertitzen saiatzen gara.



Film pornografikoaren gaineko berbaldia

Martitzenean, Aula de Cultura DVk gonbidatua, Sandra Uvek berbaldia egin zuen Monterronen. Sandra Uve da Espainiako Estatuan dagoen film pornografikoaren emakumezko zuzendari bakarra. Laster bukatuko du genero horretako laugarren filma. Horren eta komikien gainean egin zuen berba, eta horrez gain, zentsuratu dizkioten filmetako zatiak eman zituen. I.B.

E, TXO!

GUREGAIK/ GAZTEAK ATZERRIRA LAGUNTZERA

Gazteen lankide programa Hirugarren Munduari laguntzeko

IKER BARANDIARAN

ARIZMENDIKO IKASLEEK MODA-DESFILEA EGINGO DUTE GAUR, EGUBAKOITZA

Gaur, egubakoitza, Arizmendi Ikastolako Batxilergoko lehenengo mailako ikasleek moda-desfilea egingo dute Amaia Udal Antzokian. 18:30ean izango da, eta 160tik gora gazte ibili dira antolakuntza lanean. 100 lagunek desfilatuko dute; gainontzekoek beste lan batzuk egingo dituzte. Ekimenaren helburua da ikas-bidairako dirua batzea, eta horretarako 800 sarrera saldu gura dituzte. Arrasate, Aretxabaleta eta Eskoriatzako saltoki eta ile-apaindegiek lagundu dute.

GAZTETXEKO LIBURUTEGIA DOMEKETA ZABALDUKO DUTE MAILEGUETARAKO

Arrasateko gaztetxe liburutegia domeka arratsaldeetan egongo da zabalik, edozein mailegu egiteko edo bertan irakurtzeko.

GAZTE TXOKOEN KANTABRIARA TXANGOA EGINGO DUTE

Gazte txokoek Kantabria-ra txangoa egingo dute apirilaren 22tik 24ra bitartean. Arrasateko DBHko gazte guztiei egin diete gonbidapena. Egonaldia aterpetxe baten egingo dute, eta hainbat ekintza antolatuko dituzte. Interesatuak 75 euro ordaindu beharko dituzte.

TXATXILIPURDIK SUKALDERAKO ERREMINTAK BEHAR DITU

Txatxilipurdiren Garaiko etxean lapurreta egin dute. Batez ere, sukaldeko erremintak eraman dituzte. Horregatik, Txatxilipurdik eskaera egin die herritarrei etxean halako erremintak botatzeko moduan edukitzeko, elkarteari emateko, udalekuetarako behar dituzte-eta.

Eusko Jaurlaritzak eta GKEek urtero abian jartzen dute Lankide programa Hirugarren Munduari laguntzeko. Gazteei zuzenduta dago, eta horiek hiru hilabete egingo dituzte hainbat herrialdeetan laguntzen.

Eusko Jaurlaritzako Gazteria eta Garapen Lankidetzarako Zuzendaritzak urtero antolatzen du Lankide programa Hirugarren Munduari laguntzeko. Programa horren helburua da Euskal Autonomia Erkidegoko gazteen artean elkartasunaren balioa sendotzea eta garapenerako ekintzen gaineko sentsibilizazioa sortzea. Garapenerako ekintzak Hirugarren Munduko herrialdeetan egiten dituzte: Amerika, Asia eta Afrika, hain zuzen ere.

Guztira, 20 eta 30 urte bitarteko ehun gazte esku hartu ahal dute programa horretan. Ekintza uztailean hasiko da eta hiru hilabete iraungo du. Eusko Jaurlaritzak gazteen eta Gobernu Kanpoko Erakundearen arteko bitartekari lana egiten du, eta bidaieren gastuak ordaintzen ditu.

Aukeratutako gazteek honako baldintzak bete beharko dituzte: atzerrira joan aurretik, GKEek antolatutako prestakuntzan esku hartzea; jarduera egin behar duten herrian esperientzia bukatu arte egotea; eta esperientzia hori bukatu ondoren, balorazio-txostena aurkeztea, beste batzuen artean.

APIRILAREN 7RA ARTE, IZENA EMAN

2005eko deialdian esku hartu ahal izateko izenematea martxoaren 8an hasi zen eta apirilaren 7an bukatuko da. Horretarako, Kultura Sailak Gasteizen (945 01 95 30), Donostian (943 02 29 64) eta Bilbon (944 03 16 52) dauzkan bulegoetara jo dezakezu. Baita Arrasateko Gazte Bulegora ere. Ezinbestekoak izango dira 2005eko urtarrilaren 1a baino lehenago-tik EAEn egoitza izatea edo euskal izaera politikoa izatea; eska-



Gobernu Kanpoko Erakunde gehienek, Hirugarren Munduan lan egin arren, gure artean kontzientziario lanak egiten dituzte

bidea aurkezteko unean 20 urte-tik gora izatea eta 2005eko abenduaren 31ra arte 31 urtetik behera izatea; eta jarduera egingo duen herrialdeko hizkuntza ondo hitz egitea, hain zuzen ere.

ZER AURKEZTU BEHAR DEN

Interesatuak honako dokumentuak aurkeztu beharko dituzte: eskabide-inprimakia, EAEko udalen bateko erroldan dagoela

egiaztatzen duen agiria; NAREN fotokopia, bi argazki, hizkuntzak ondo dakiela ziurtatzeko agiriak; eta curriculumak.

INSKRIPZIOEN OSTEAN, AUKERAKETA

Aurretiko izenematea bukatu ostean, aukeraketa fasea egingo dute. Aukeratuak izango direnek orientazio eta formazio ikastaroa egin beharko dute, GKEen eta ekimenaren beraren helbu-

ruak hobeto jakiteko. Ekimenaren bultzatzaileek gogoratu dituzte Hirugarren Munduan abian jarriko dituzten garapen proiektuetarako honako ikasketa hainbat dituzten lagunak hobeto egokitu direla: Informatika, Ekonomia, Kontabilitatea, Medikuntza, Erizaintza, Pedagogia, Heziketa, Ingeniaritza eta Albaitaritza, besteak beste. Horiek dira proiektu handienak.

Hamaika urte pasa dira Euskal Gazteak Lankide programa hasi zutenetik. Urte hauetan 20 eta 30 urte bitarteko EAEko gazteak baino gehiagok parte hartu du programa horretan. Horien artean, emakumezkoak dira gehienak: %70 osatzen dute, hain zuzen ere. Adinari dagokionez, batez bestekoa 25 urte da. 60 gazte baino gehiago ibili dira lankidetzan.

Eusko Jaurlaritzako ordezkari-tzetan eta Gazte Bulegoan jaso daiteke horren gaineko informazioa

Hiru hilabeteko egonaldiak egin beharko dituzte, eta aurretik formazioa jasoko dute

MADINA ZURAK

Aroztegia

- Olak
- Aglomeratuak
- Kontratxapatuak
- Tablexa
- Ateak
- Egurrezko leihoak
- Oin-inguruak
- Zangoak
- Aroztegiko osagarriak

Uribarri auzoa B-2 B S3 sektorea
•Tel.: 943 79 13 78 ARRASATE
e-posta: mz@madinazurak.com

BASATI
TABERNA
PINTXUAK, BOKATAK ETA TRAGUAK
943 711768

UGARAN
jatetxea
Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

ZUBIZARRETA
LANTEGIAK
Gipuzkoa etorbidea 22
ARRASATE
Tel.: 943 79 15 65

BOTEPRONTUEN

Mikeldi Garmendia Lete

TOLDOS LETE

XABIER URTZELAI

Mikeldi hamalau urte egin dau negozio familiarrien lanien. Aittejaunek sortu euen enpresie oin berrogei urte, amak jarraitu euen gero, eta oin, berai tokau jako negoziue hartzie. Eibarren hasi bazien be, oin bi tailler daukie: Mondraguen eta lurretan. Kataiden dau Mondragueko tailerra.

Tolduekin egitten dozue lan, baiñe neguen saltzen dozue toldorik?

Askorik ez! Lurretako taillerrien kamioiendako eta holakuendako tolduek egitten dou, eta hamen etxietarako tolduekin ibiltten gare. Lurretan ez da egoten problemarik, baiñe hamen lan gutxi eukitten dou. Horrek esan gure dau urte danielan egin ez doune udan egin biher doule.

Udan, hortan, ez dau asperketako denporarik.

Ez. Ordu mordu egitten dou lanien, eta leku danetara ezin ailegau... Kontue da jentie eguzkixek urteten dauenien akordetan dala toldue biher dauela, eta orduen hasien die danak deike.

Toldue gure dauenak ointxe hasi biherko leuke mobiduten?

Komeniko litzake; izen be, juli-xuen deiketetan badau seguruenik ezin izengo dou atendidu. Danek gure izeten daue agostorako toldue euki, baiñe julixuen deittute hori oso gatxa izeten da. Juen zan urtiten batei baiño gehixauri esan gutzen ez zala posible izengo, eta aurten lehenau hasi die deiketetan.

Andaluzian ez daue holako problemarik eukiko.

Ez, probeedoriek be iguela esaten dust; han, urte danielan saltzen dauela. Hamen, baiñe, neguen gutxi eskatu, eta udan dana batera; eurak be mariaute ibiltten die.

Ze kliente eukitten dozue?

Lehen, partikularrak etorten zien gehixau, baiñe azkeneko urtietan, etxe barririk egitten dabitzen agentziak etorten die etxe guztietarako tolduek eskaketan. Iguelak eskaketan daue, eta, egixe esateko, polittae geraketan da.



"Eskertuko geuke toldue gure dauenak oin hastie mobiduten; udan lan askokin ibiltten gare"

Trabak be eukitten dozue lanerako.

Bai. Leku askotan tolduek ipintteko sekuleko permisuek biher die, eta papeleo hori azkarrau egittie ez litzake txarto etorriko.

Zeun lanerako ezinbestekue dan gauza bat.

Jente profesionala eukittie.

Zerk emuten dutzu begixetan min?

Horretara dediketetan ez dan jentie tolduek ipintten ikustiek. Danetik egin gure daue, baiñe tolduek, behintzet, ez daue biher dan moduen jarten. Ipinttiekin eta kobretiekin ez da nahikue, lana ondo egin biher da.

Lana alde batera itxitte: ze fal-

"Olandixoko tunela da Mondraguek biher dauena, kamioiek herri barrure ez sartzeko"

ta jako Mondragueri?

Olandixoko tunela egittie, kamioiek herrire ez sartzeko.

Eta ze dauko ona?

Aspaldixen etxe politte dabit egitten.

Ze falta jatzu zeuri?

Neguen lan haundixaeu.

Eta ze dauketzu sobran?

Umore ona.

Pelikula bat / Liburu bat / Musika talde bat.

El último mohicano / Drogakin problemak euken emakune baten istorixie leidu neuen gustora, baiñe ez naz tituluekin akordetan / Moby gustetan jat.

Kapritxo bat?

Barriro be Kanadara juetie.

NIREBIDAIAHURA / Julia Monge

Myanmar-era (lehengo Birmania) / 2004ko azaroan

Joan den astean Birmaniako kontuekin ibili ginen gora eta behera, baina badugu zer zuzendu, gaur egun Myanmar da-eta lurralde horren izen ofiziala. Eta Juliak lurralde horretako egoera sozio-politiko azaldu eta gero, bidaiari ekingo diogu.

Myanmarko hiriburuan hasi zuen Juliak bidaiak: "Yan-gon-era (lehengo Rangun) iritsi eta hegazkinetik jaitsi nintzanean haize beroak muturrean eman zidan. Harainoko bidea luzea denez, neka-neka eginda iritsi nintzen, eta egia esateko, hurrengo goizera arte ez nuen jakin nondik nora nabilen. Hiri zaratsua da Yan-gon, eta bidaiakook berehala egin genuen handik alde". Kyaiktiyora joan ziren zuzenean: "Myanmarko biztanleriaren %90 budista da, eta pagodaz beteta dago lurralde osoa. Pagodak ermita modukoak dira, eta Kyaiktiyora joatea Santiagoko bidea egitea bezala da. Han, baina, oso turista gutxi dago".

Hurrengo egunean Taunggoora egin zuten: "Hiri zatarrak da, ez zitzaidan batere gustatu". Mandalay ere ez ei da oso polita, baina inguruak ederrak dituela esan digu Juliak: "Eguzkia nola ezkututzen den ikustera gelditzen ginen. Zelako momentua!!! Postaletan azaltzen diren moduko argazkiak atera zitezkeen, eta zelako lasaitasuna..."

Myanmarren bidaiatzea ez da batere erraza, eta hirietan autoetan ibiltzen badira ere, hiritik kanpo zaldietan, bizikletan eta ontzian bidaiak daiteke: "Mingun-era egin genuen bidaiak asko gustatu zitzaidan. Ibaian gora egin genuen ontzian, eta oso bidaiak hunkigarria izan zen, ontzian nindoan bitartean *El afinador de pianos* liburua irakurtzen nindoalako. Liburua bertan, protagonista ontzian zihon, hura ere Mingunera bidean; oso berezia izan zen". Mingun atzean utzi eta Inwa ezagutu zuten: "Garai bateko hiriburua izan zen, eta hura ere postaletan ateratzeko moduko lekua da, ze ederra...". Datorren astean, besteak beste, budistez betetako monasterioan sartuko gara.

XABIER URTZELAI



"Malaria gaixotasunari aurre egiteko krema berezia erabiltzen dute".

BITTORI

ERRETEGIA

Eguneko menua - Kartako menua
Especialitateak:
legatz kokotxak eta txuletak

Araba Etorbidea 3 ARRASATE Tel.: 943 79 55 82

Mobiliario ARENZA

- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABAETA

ad Ibabe

IBABE GARAJEA

MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA

Gesalibar auzoa z/g.
Tel.: 943 79 99 61 • ARRASATE

ZAHARREN ETXETIK

Arrasateko zazpi ordezkari lehiatu dira Gipuzkoako erretiratuen finalerdian

IKER BARANDIARAN

Gaur, egubakoitza, Debagoieneko eta Zumarraga inguruko erretiratuek Goierri eta Tolosaldekoen kontra Gipuzkoako mahai-jokoen txapelketako finalerdiak jokatu dituzte Legazpiko Buztingi elkartean. 11:00etan ziren hastekoak norgehiagokak, baina ziur bazkal ordura arte eutsi diotela jokoari. Txapelketako finala noiz jokatuko duten ez dute zehaztu oraindik.

Joan den egubakoitzean, hilaren 11n, Debagoieneko erretiratuek Zumarraga ingurukoen aurka jokatu zuten, eta gure ibarreko hainbat lagun finalerdietarako sailkatu ziren.

Seien jokoan, Oñatiko Pakelekuko Maria Luisa Zubia eta Ana Maria Chacon izan ziren irabazleak; eta igelaren jokoan, Bergarako San Josepe elkarte-ko Jesus Ruiz de Azua eta Antonio Mateos.

Horrez gain, Debagoiena ordezkatzeko zuten zazpi arrasatearrek ere irabazi zituzten nor-



Argazkian, briska eta tuteko txapeldunak Arrasaten jokoan egin zutenean.

gehiagokak: xakean, Santa Marinako Toki Argi elkarte-ko Angel Egidonek; briskan, Musakolako Micaela Muruak eta Juanita Gilek; dominoan, Uribarriko

Francisco Roperok eta Jose Mari Garciak; eta tutean, Musakolako Elias eta Felix Uranga osaba-ilebek. Pozik daude debagoiendarrak, eta are gehiago arrasatear-

rrak, herriak kontuan hartuta gehien irabazi dute-eta.

Gaur, egubakoitza, jokatu-tako emaitzak jakin ahala emango dizkizuegu.



Gotzaindegiak eta Udalak hitzarmena

Eguaztenean, Arrasateko alkate Inazio Lakuntzak eta Gipuzkoako Gotzaindegiko Ekonomia arduradun Jose Maria Madinak hitzarmena sinatu zuten Arrasateko udal-letxean.

Hitzarmenaren bidez, Gipuzkoako Gotzaindegiak Arrasateko Udalarari San Isidro elizaren alboko lokala 10 urtez utziko dio, eta 15 urtez luzatzeko aukera eman dio.

Udalak gura du 2006. urterako Musakolako zaharren elkarte lokal horretan ego- kituta izatea. //B.

LABUR

Udan egoitzetan egonaldi laburrak egiteko programa

Abian dago adinekoek udan egoitzetan egonaldi laburrak egiteko programa. Uztaile- ren 1etik irailaren 30era arte egingo dute. Plaza horiek Gizarte Ongizaterako Foru Aldundiak zehaztuko ditu. Egonaldiak gehienez hilabete-koak izango dira. Informazio gehiago, udaletxean.

1934an jaiotako urteroko jaiak apirilaren 2an

Apirilaren 2an, 1934an jaiotako gizonezko eta emakumezkoek urteroko ospakizuna egingo dute. 12:30ean mezentzango dute San Frantzisko elizan, eta 14:30ean, Aida- pe jatetxean bazkalduko dute. Interesatuak Bengoa tabernan eman beharko dute izena eta 10 euro ordaindu.

Erretiratuendako formazio ikastaroa Nagusilanen eskutik

Nagusilanek, erretiratuen laguntzen lan egiten duen erretiratuen elkarteak, ikastaroa antolatu du apirilaren 4,6,7,11,13 eta 14rako. Doan izango da, eta oraindik ezin izan dute zehaztu non emango duten. Konfirmatu bezain laster aditzera emango dute.

Ikastaroaren helburua da Nagusilaneko kideei eta beste gura duten beste erretiratuei ere formazioa eta hainbat aholku ematea. Hori guztia laguntza behar duten erretiratuek zaintzeko mesedegarria izan dadin, jakina. Lan- elkarteak emango dituzten eskolak, eta hizlaria Pedro Bilbao izango da. 17:00etatik 19:00etara izango da.

Ikastaroan izena emateko, informazio gehiago jasotzeko edo Nagusilan elkarte- arekin harremanetan jar- teko, deitu honako telefono zenbakira: 943 79 25 85.

ERRASTI KRISTALDEGIA

Plastiko eta burdinazko hodiak
beirina eta kristalak osagaiak

Olarte kalea, 47 beheha Tel.: 943 79 22 55 / 943 79 14 25

S. CARRASCAL S.L.

Guk egindakoak:

- Sukalde altzariak
- Horma-armairuak
- Trastelekurako armairuak

Fabrikan erakusketa

Gipuzkoa etorbidea 6 -1.a
Tel./Faxa: 943 79 01 82



Zenbaki

- Kontabilitatea
- Fiskalitatea
- Lana
- Juridikoa

Aholkularitza

Basabe poligonoa F-O-10 (1. solairua) ARETXABALETA
Tel.: 943 71 21 12 - Faxa: 943 71 22 68

EZETZASMATU



Non daude argazkian ikusten dituzuen zabuak?
Arrastoa: aldapak ez dira falta auzo hartan.

Super BM

Super BMk emandako 30 euroko erosketa-txartela zozketatuko du ARRASATE PRESSEK asmatzaileon artean!

ERANTZUNA

IZEN-DEITURAK

TELEFONOA

Ekarri txartela **MARTITZEN ARRATSALDEAN** ARRASATE PRESSERA!

Pantene xanpua
300 ml

3,75€ 624 pta.

Super BMn beti eskaintzarik onenak!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

EDURNE AGUIRIANOrendako izan da 30 euroko erosketa-txartela. Zorionak, Edurne!
Galderen erantzun zuzena:
Usaetxe plaza.

INGURUKOKONDAIRAK

Aramaion gordetako altxorrak, eta Torralde

ARAMAIOKO UDALAREN WEBGUNEAN


Joan den astean, Arrasate-tik Aramaiora egin genuen salto, kondaira bila. Asko topatu ditugu han. Era guztietakoak. Oraingo honetan, Aramaion gordeta dauden altxorren eta Torralde-
ren gainean berba egingo dugu:

“Aramaio altxorrez gainezka dago kontatzen denaren arabera. Bost altxorren berri behintzat bada eta gehienak Orixoleko haitzetan ezkutatuak izan zirela dirudi.

Lehenengoa Lonbideren poltsa izenez ezagutzen da. Urdungion jasotako informazioa dugu honakoa; familiar gertaturiko pasadizo bitxi bat kontatzen da bertan. Haitzean lurperatua, txanponez beteriko kaxa bat omen dago, Urdungiotik ez oso urruti. Urtean zehar bila ibili diren arren, oraindik ez da ezer aurkitu.

Bigarrena Arriolako Goienengo Nagusiko ugazabek lurperatu ei zuten. Edarrakara urte hartu eta haitzera eraman zuten gordetzer, gerrak, lapurrak edo zerbaiten beldurrak bultzatuta. Lekuko batzuek diotenez hil egin zituzten eta altxorra hor gelditu zen inork non zegoen jakin barik.

Hirugarrena Ilunpeko haitzekoa dugu. Koadrila batek zulo



Berta Ibañeren familiaren baserria: Ibañeta baserria eta Maskaiano baserria ere ikus daiteke.

bat egin zuen bertan urrea zego-elakoan. Gaur egun zuloa beteta dago, artzainek bete zuten ardiak bertara jausten zirelako.

Laugarrena jada aurkitutako altxorra da. Txanponez beteriko arran bat topatu ei zen Ilunpeko haitzaren ondoko zuloren batean.

Ezkondu behar zuen emakumeak kondearekin igaro behar izaten zuen lehenengo gaua

Eta, azkenik, kontatzen dutenez, Napoleonen denboran soldaduak ibili ziren inguru hauetan. Urdungio baserriaren inguruan bola lekua egin zuten eta jokoan zebiltzala zesta batean urrea maneiatzen zuten. Gainera urte biltegi bat ere eduki zutela diote.

TORRALDEKO KONDEARENA

Errealitatea eta fikzioa nahastu egiten dira gai honi buruz hitz egitean. Istorio asko daude lotuta Barajuen auzoari eta hauetako bat Jauntxoari buruzkoa da. Torraldeko Jaunari buruz galdetzean, burura etortzen den lehenengo gauza lehen gaueko eskubidea zuela da. Neska-mutilak ezkontzen zirenean emakumeak harekin igaro behar izaten zuen lehenengo gaua. Nahigabe handiak sortzen zituen ohitura horrek herrian eta beldurrez egoten ziren neska gazteak. Batzutan haurrak ere eramaten omen zituen bere gaztelura eta urtetan han eduki.

Lekuko askok badakite esaten nork bukatu zuen ohitura harekin. Badirudi Berta Ibañe, Ibañe baserriko alaba, izan zela kondeari frente egin ziona. Berta Ibañeri tokatu zitzaionean zera egin zuen, kortara joan eta bere burua lohiez bete, simaurrez igurtzi. Kondeak ikusi zuenean, higuindu egin zen; Juana Ibañeren arabera, zera esan zuen kondeak orduan: *Oñate para las ranas y Aramaiona para marranas*. Berta Ibañeren ekimen horrekin amaitu zirela horrelako kontuak sinisten da, eta ordutik aramaiorrek bizimodu duinagoa izan zutela”.

‘AYER Y HOY DEL VALLE DE ARAMAIONA’ LIBURUA

Txirritola

ARAMAIO / Barikua / 2005eko martxoaren 18a / 144. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Ubane Madera • Otorala Lizentziaduna 31 20500 ARRASATE • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: txirritola@goiena.com • Lege gordailua: SS.1084/02

Udalaren kontrako epaiketa irabazteko esperantzarekin

UBANE MADERA

Formazko akatsa izatearren, salaketa atzera botatzeko eskatu du Aramaioko Udalak. Argudio horretan oinarritu zuen abokatuak Udalaren aldeko defentsa.

Martitzenean epaitu zuten Udalak Gasteizko Auzitegi Probinzian. Ordezkarari moduan, besteak beste, Mertxe Mondragon alkatea izan zen, Txomin Eskudero abokatu gasteiztar lagunduta.

2003an, preso senideei dirulaguntza ematearren epaitu dute orain Udalak. Hain zuzen ere, Estatuko abokatuaren salaketaren arabera, Udalak ez du eskumenik halako laguntzak emateko. Era berean, epaiketa egunean, beste argudio bat ere aurkeztu zuen Estatuko abokatuak: Udalak ez duela araudirik mota horretako laguntzak emateko.

LEHENENGO KASUAN, AKASO IRABAZI

Mertxe Mondragon alkateak konstatu digu epaileak eskumenik ezaren arabera erabakitzen badu epaia, Aramaioko Udalak epaiketa irabazteko aukerak dituela, lehen esandako moduan, formazko akatsak daudelá argudiatuta.



Presoen senideei dirulaguntza ematearren epaitu dute Udalak.

Araudirik ezaren argudioa erabiltzen badu, berriz, gaineratu digu litekeena dela Udalak epaiketa galtzea, aurtan egin dute-eta, aurreneko aldiz, mota horretako araudi bat. Edozelan ere, alkateak adierazi digu badutela epaiketa irabazteko esperantzarik.

Legearen arabera, epaileak hamar egun barru jakinaraziko du erabakia.

HIRUGARREN EPAIKETA

Politikarekin lotuta, hauxe da Udalak izan duen hirugarren epaiketa. Aurrenekoa preso aldeko pankarta batengatik izan zen. Kasu horretan, Udalak irabazi egin zuen, formazko akatsa zuelako salaketak. Bigarrena *Berria*-ri laguntza ematearren izan zuen. Orduan epaiketa galdu egin zuen, baina horrek ez zuen ondoriorik ekarri.



Korrika: ohorezko gonbidatu, eguaztenean

Eguazten ilunkeran iritsi zen Korrika Aramaiora. Baina arratsaldeko lehen orduetatik *Korrika giroa* izan zen herrian. Hasteko, eskola-orduak aprobetxatu, eta txikienek euren Korrikatxoa egin zuten: eskolatik atera, Ibarran gora eta behera egin eta eskolara itzuli. Gero, txokolatea eman zieten, askaria egiteko. Eta arratsaldeko azken orduetan, txalaparta doinuak, trikitia, bertso doinuak... entzun ziren, Korrikaren zain egon bitartean. Gero, euskararen aldeko oihuak besterik ez zen entzun. Aste barruan jai giroa izan zen Aramaion Korrikari esker. /U.M.

HERRITARREN HITZA / Arantza Ibabe • Langilea

Udabarri guran

Gaur, hilak 18, udabarri guran gaude jada asko eta asko, sekulako negu latz, gogor, gorri, hotz eta zuritua pasatu eta gero. Zaharrek diote lehengo neguak horrelakoak zirela eta arrazoi izango dute baina horrelakoak, txikitari izan ezik, sarritan bizi izan ez dugun batzuek luze iritzi diogu aurtengo neguari. Eta aizue, hemendik egun gutxira udabarria ofizialki behintzat badatorrela eta, ordua da jada eguzkiak bisitaldi indartsu eta luzeagoak egin diezazkigun. Ez al zaudete ados nirekin? Ia beti adostasuna lortzea ezinezkotzat jotzen dugun arren kasu honetan oraindik ere elurraz

geratu gura duen gutxi egongo direlakoan nago.

Herri honi falta zaio adostasuna, bat egitea, hain zuzen ere. Gure arteko liskarrak oraindik ez du etsi, hortxe dirau eta udabarri faltan gauden legetxe, herri honetan adostasun minimo batzuetara ailegatzeko beharrezan gaude benetan merezi dugun bakea lortzeko. Jakina, arestian esan bezala, neguan gustura geratuko liratekeenik badagoenez, gatazka latz,



"Luzaroan udabarri barik egon arren, ez dezagun ahaztu"

gogor, gorri, hotz eta luze honetan gustura dagoenik ere egon badago tamal-tamalez. Eta udabarria, bihar ez bada etzi eta etzi ez bada etzilimo ailegatuko den legez, ailegatuko ahal zaio herri honi ere udabarria!

Ez ditut udabarri honetarako egin dituzten eguraldi iragarpenak entzun, baina esan didatenez gehientsuenak bat etorri dira eta udabarri kaskarra, goibela eta euritsua iragarri digute. Bero goseak

amorratzen nago eta ez ahal dute bada asmatuko! Uste dut nahikoa elur eta hotz egin duela eta honezkero sortutako mikrobio, birus, kutsadura eta belar txar guztiak desagertu izana espero dut.

Orain, arbolak loretan egoteko aroa da, eguzkiak gogor jotzeko, kalera irteteko, kalean berbetan luzaroan egon eta egunarekin bat etxeratze-koa, zelaiak lorez beteta egoteko, mendirantz goazela bertako landarediaren usain indartsu eta berritua arnasteko garaia. Hori da hain zuzen ere udabarria. Luzaroan bera barik egon arren, ez dezagun ahaztu nolakoa den.

LABUR

Norberaren helbideak-eta eguneratu behar

Aramaioko askok ohitura duten etxeetako postontzietan izan behar eta ez ipintzeko; eta beste askok, etxek aldatzen dituztenetan, ez dute helbiderik eguneratzen. Horren ondorioz, gutxiak banatzeko orduan, arnasa izaten dituzten postariak, beste ere Aramaion postari berritadagoenean. Hori dela eta, Udalak zera eskatu du: norberaren bizi diren guztien izen-ahiznak ipintzeko (senar-emazteak, na...). Eta jakina, etxek aldatzen gero, helbideak eguneratzen ere eskatu du.

TELEFONO JAKINGARRIAK

OSASUNA / LARRIALDIK

Osasun etxea (txandak)	945 44 53 40
Botika	945 44 50 03
Udaletxea	945 44 50 16
Ertzaintza (Arrasate)	943 79 71 99
Gurutze Gorria (Legutio)	945 45 52 52
San Martin Eskola	945 44 50 04
Taxia eta autobusak	945 44 50 33
Udal kiroldegia	945 44 53 35
Postetxea	945 44 50 83
Zuiaiko Eskualdea	945 43 01 67
Suhiltzaileak (Zubillaga)	943 78 28 00

AUTOBUSORDUTEGIA

ARRASATE	ARAMAIO	GASTEIZ
07:00	07:15	08:00
10:00*	10:15	
11:00	11:15	
12:00*	12:15*	13:00
15:15	15:30	16:15
17:20	17:35	
18:30*	18:45	
20:30	20:45	21:25
21:00*	21:15	

GASTEIZ	ARAMAIO	ARRASATE
	07:50	08:05
08:15	09:00	09:15
	10:15*	10:30
	11:15	11:30
13:10	13:55	14:10
16:20	17:05	17:20
	17:35	17:50
	18:45*	19:00
19:30	20:00	20:15

OHARRA: izartxoan duten orduetan eskaeraren arabera zerbitzua eskaintzen dute. Auzoetako bizilagunei zuzendutakoak da, eta autobusa erabili gura badute, bezperan deitu beharko dute honako zenbaki honetara: 629 54 59 23

OHARRAK

ZAPATUAN, 'COLLATERAL'
Oraingo astean, barikuan beharrean zapatuan egingo dute gaueko zinema emanaldia. Ordua betikoa izango da: 22:30ean. *Collateral* filma aukeratu dute oraingo honetarako. Michael Mann zuzendariak gidatutako filma da, thriller generokoa. Aktoreen artean, Tom Cruisek (*Vanilla sky*, *Misión imposible 2...*) eta Jamie Foxxek (*Ali*, *Un domingo cualquiera...*) parte hartzen dute. Filmak Oscar sarietarako bi proposamen izan zituen, aktore eta muntaia onenei.

UMEEEN ZINEMA
Oraingo domekan, telebistari esker horren ezaguna egin den Shin Chang-en marrakzi bizidunen filma emango dute. *Shin Chang* *El Rescate* da izenburua. 17:00etan hasiko da.

TAMAINA HANDIKO ZABORRAK
Aste Santua dela-eta, tamaina handiko zaborren bilketa atzeratu egingo dela jakinarazi digu Udalak. Hain zuzen ere, apirilaren lehen pasako dira Aramaio-tik haiek batzera.

Adineko pertsonendako egonaldi laburrak, udan


U.M.

Egoitzetan, udan egonaldi laburrak egiteko plazak eskatzeko epea zabaldu dute. Pertsona nagusiendako eskaintza da. Interesa dutenek martxoaren 31ra arte dute izena emateko, eta Udaletxera jo beharko dute horren gaineko informazioa jasotzeko.

Hiru hilabeterakoa da Foru Aldundiak egin duen eskaintza hori: uztailearen lehen hasi eta irailaren 30era bitartekoa. Hori bai, gehienez, hilabete bateko egonaldiak egin ahal izango dituzte plazak lortzen dituzten pertsona nagusiek. Hain zuzen ere, uztailean eta irailean 30 gau egin ahal izango dituzte; abuztuan, berriz, gehienez 15 gau.

Egoitzetako plaza horiek Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearekin hitzartutako egoitza pribatuetaoak izango dira, programa horrek behar dituen ezagutza betetzen dituzten egoitza pribatuetaoak, hain zuzen ere.

ONURADUNEN BETEBEHARRAK
Programa horretan parte hartu ahal izateko, 60 urte edo gehiago izan behar ditu eskatzaileak. Era



Uztailearen 1etik irailaren 30era arteko da egonaldien eskaintza.

berean, Araban erroldatuta egon behar du, gutxienez hiru urtean, inolako eten barik. Eta azken bi urteotan zergaren aitortpena Arabako Lurralde Historikoan egin da izan behar du. Horrekin batera, dagokion balorazio organoaren txostena aurkeztu beharko du. Eta bukatzeko, etxean zainduta egoten diren eta laguntza

behar duten pertsonak izan beharko dute.

ESKAERAK AURKEZTEKO
Lehen esandako moduan, martxoaren 31ra arteko epea zehaztu dute egonaldien eskaerak egiteko. Udaleko Oinarrizko Gizarte Zerbitzura jo beharko dute eskaerak egiteko.

BOTEPRONTOAN/ Maribi Basaguren · Etxebarri landetxeko arduraduna

“Etxebarri landetxea Otxandio ondo-ondoan dago, baina Aramaio da, duda barik”

Aramaio landetxe guztiak ezagutzeko Etxebarriara joatea falta zitzaigula-eta, haraxe jo dugu. *Limitaua*-n dago Etxebarri, Otxandioaren sarrera-sarreran. Maribi Basaguren olerria izan dugu berba-lagun:

Noiz eta zela pentsatu zenuten landetxea zabaltzea?

Behin egunkaria irakurtzen izan genuen aukera horren berri; baserrian lanak egin behar genituen eta anai-arreben artean pentsatu genuen lan handiagoak egin eta landetxea egitea. Otsailean lau urte bete genituen zabaldu genuela. Sei logela ditu landetxeak, bainuarekin eta telebistarekin guztiak; egongela ere badu, sukaldia eta lorategi handia, barbakoarekin. Baina gure espezialitate moduan-edo, esango nuke jendearekin ondo konpontzeko erraztasuna dugula.

Zabaldu zenutenetik zelako ibilbidea izan duzue?

Hobetzen joan garea uste dut. Jakina, urtean zenbait sasoi-tan ez dugu inor izaten. Baina urtetik urtera begiratzen,



“Gure espezialitate moduan-edo, esango nuke jendearekin ondo konpontzeko erraztasuna dugula”

geroago eta bezero gehiago ditugu; gainera, etorri izan diren bezeroetariko batzuk berrituz datoz, ahoz ahokoak asko funtzionatzen du; dagoneko batzuen lagunak gara. **Zelako jendea etortzen zaizue?** Asteburuetan, hemengoak, Euskadikoak. Baina oporretan-eta, kataluniar mordoa. Galiziatik, Madrildik eta Gaztelatik ere etorri izan dira, baina gutxi batzuk. Kataluniarak dira gehienak. **Zeren bila etortzen dira? Paisaia, janaria...** Denetik egitera. Mendia oso gustuko dute; hiriburuak ikustea ere bai, ondo jatea... **Aholku turistikoa eskatuz gero, zein gomendio ematen**

“Etorri izan diren bezeroetariko batzuk berrituz datoz; ahoz ahokoak asko funtzionatzen du”

diezue?
Propaganda mordoa dugu: hemen inguruko mendiena, gune naturalena (Gorbeia, Urkiola...), hiriburuena... Orokorrean, Euskadi osoa gomendatzen diegu. Oso polita da. Itsasoa dugu, mendia ere bai... Denetik dugu. **Baduzue bezero berezirik?** Bai, Robert eta Teresa. Izan ere, oso-oso jatorrak dira! Fermin Muguruza ikustera etorri nahi zuten; sei egunera-ko etorri ziren eta luzatu egin zuten egonaldia. Gero, abendu-ko zubian etorri ziren berrituz, eta orain, Aste Santuan etorriko dira. **Limitaua-n zaudete; ezinbesteko galdera: Etxebarri Aramaio da ala Otxandio?** Aramaio, duda barik! Esaiozu bestela gure anaiari! **Zer dela eta?** Otxandio ondo-ondoan gaude, baina... Anaia oso aramaioarra da. (Barre) **Beste zerbaite esan nahi baduzue...** Iaz Kalitatezko Q eman zigiten. Eta datorren urterako ere akaso lortuko dugu berrituz.

LABUR

Hauteskundeekin lotutako osoko bilkura egingo dute

Datorren astelehenean, hilak 21, osoko bilkura berezia egingo dute. Apirilaren 17ko hauteskundeetan eskolako hauteskunde-mahaietan egongo diren herritarren izenak zozketatuko dituzte batzar horretan. Betiko moduan, 18 herritarren izenak atera beharko dituzte. Gero, martxoaren 26a baino lehen bidaliko dizkiete jakinarazpenak hauteskundeetan lan egitea tokatu zaienei.

OSOKO BILKURA ARRUNTA

Martxoari dagokion osoko bilkura, berriz, hilaren 30ean, eguaztena, egingo dute. Udal idazkariak jakinarazi digu gai dezente dituztela pilotuta batzar horretan lantzeko. Aurreratu digu, besteak beste, Udalbiderekin (lehenengo Udalbiltza) lotutako hitzarmen bat aztertuko dutela; Euskal Fondoari dagokion kuota ordaintzea; Maider Unda kirolariak egin duen dirulaguntza eskaera onartu ez erabaki beharko dutela, eta baita udal langileen lan baldintzekin lotutako proposamen bat ere. Osoko bilkura arrunta denez, 18:00etan hasiko da.

ERRETRATUZAHARRA

Santa Barbarako 'Behekobalun'

Santa Barbara parkean dago aterata oraingo asteko argazki zaharra. Hain justu ere, gaur egun harrizko eraikina dagoen lekuan. Lehen *Behekobalu* esaten zioten leku horri.

Honako hauek azaltzen dira argazkian: ezkerrean, Mertxe Trojoala; zutik, Tere Otadui; eta haren ondoan, Mari Carmen Bergaretxe. Belauniko, berriz, Itziar Zumelaga dago eta eserita, Begoña Olazabal.

Gure berriemaileek kontatu digutenez, koadrilakoak ziren neska horiek. Arratsalde pasa Santa Barbarara joan ziren, eta hantxe harrapatu zituen On Justino Uribesalgok bere argazki kamera eternalarekin; eta, zela ez, argazkia atera zien.

Hiru zaletasun omen zituen On Justino Uribesalgok: bizikleta, argazki kamera eta umeen lagun izatea. Arrasateko eskoletan eta elizan katekesia erakusten zuela kontatu digute. Baita ere domeketan eta jaiegunetan umeendako meza berezia esaten zuela San Frantzisko elizan,



09:15ean. Herriko eskola guztietako ikasleak joaten ziren meza horretara; bakoitzak esertzeko lekua zehaztuta izaten zuen.

Santa Barbara parkearen gainean, berriz, zera kontatu digute: sasoi hartan herrian eta inguruan ez zela egoteko leku askorik izaten eta

arrasatearrek ohitura handia zutela Santa Barbarara arratsalde pasa joateko, edo udan afari-meriendak egiteko, batez ere, seme-alabak zituzten gurasoek. Parkean biltegi bat zegoela esan digute: Meatzerrekatik etortzen zen ura Santa Barbarako biltegiraino, eta handik banatzen zuten Arrasatera.

Oso ur on eta freskoa zela esan digute, sasoi hartan onenatarikoa.

Biltegi gainean zabuak zeudela ere gogoratzen dute gure berriemaileek.

Argazkia: On Justino Uribeslago.

Informazioa: Mertxe Trojoala eta Espe Lizarralde.

Urtea: 1950-52 urtea.

NOLAALDATUDIRENGAUZAK

IFAMeko langileak protestan

1993ko maiatzean, IFAM enpresako langileek protesta ekitaldiak egin zituzten. Kontua da enpresa horretan enplegu erregulazioa hasi zutela; horrenbestez, langileek astean bi egunean ez zeukaten lanik. Langileen esanetan, zuzendaritza ahalegintzen zebilen Asiatic ekarritako produktuak komertzializatzen, hemen egitea baino merkeagoa zelako.



≈ 1993 Egun, Legarriango etxeak dira IFAM lantegia non egon zen erakusten duten erreferentzia garbiena.



2005 Eta Legarra plazak eta Lapurdi eta Zuberoa kaleetako etxebizitzek bete dute IFAM lantegiak utzi zuen hutsunea.

KONTRATAK
IRYROK S.L.
ERAIKUNTZAK

Meatzerreka 5 bis - 246 posta-kutxa
Tel.: 943 77 09 92 Faxa: 943 79 78 14
ARRASATE

ileapaindegia
peluqueria

Gorka

Astelehenetik-ostiralera 09.30-20.00
Larunbatetan 08.00-14.00
Ferrerias 35 - 943 77 13 78
ARRASATE
Bainuetxe 10 - 943 79 70 25
ARETXABALETA

JOSE LUIS ABUIN
kiromasajista - naturopata - akupuntorea

Lokal berria :
Musakolako Udal Kiroldegia - ARRASATE - 943 77 16 77

San Josepe 10 behea D - ARRASATE - 943 77 01 33

20 urte baino gehiago zuen artean

Osasun Gida

AKUPUNTURA

- INTEGU (Masajea, Osteopatia) Uarkape, 18 behe. ezk. 943 77 13 34

DERMATOLOGIA

- CONCEPCION TAMAYO Dk. Munar 10 620 12 48 43

ENTZUMEN ZENTRUA

- GAES Otalora lizentziaduna 18 943 71 27 93
- INSTITUTO OPTICO. BIOACUSTICA Erdiko kale 22 943 79 71 68

FISIOTERAPIA ETA GAIBERRITZEA-ERREHABILITAZIOA

- ANDONI ETA MARIA BASTERRETxea Errehabilitazio Zentrua Garibai Etorb. 6B 943 77 03 96
- FRANCISCO JAVIER LOPEZ DE MUNAIN. (Medikua) Zaldibar, 4-1. 943 77 14 72

KIROPRAKTIKA ZENTRUA

- ANDREA LARRAÑAGA Erdiko kalea, 22-3. eskuma. 943 79 92 83

LOGOPEDIA

- PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA Ignacio Zuloaga,10 943 79 48 77

MASAJEAK

- JOSE LUIS ABUIN (Kiromasajea, akupuntura, naturopatia) San Josepe, 10 Behea, D (Kiroldegian ere bai) .. 943 77 01 33

ODONTOLOGIA

- ARRASATE HORTZ KLINIKA Iturriotz, 19-1 Ezk 943 79 72 23
- ARREGI HORTZ KLINIKA Zerkaosteta, 19 behe 943 79 71 90
- IRIARTE IRURETA, ANE MAITE Iturriotz, 7- 1 943 79 69 45
- LOPEZ DE GOIKOETXEA (Goiz eta arratsalde) Alfonso X. Jakintsua, 5 943 79 17 74
- LORENZO MARTIN, RAFAEL Zarugalde 16- 1.-Esk. 943 77 12 63

OPTIKA

- ARRASATE OPTIKA (Optika, Optometria eta kontaktologia) Kontzezino,6 943 79 25 98
- INSTITUTO OPTICO (Optika, Optometria eta kontaktologia) Erdiko kale 22 943 79 71 68
- MULTIOPTICAS LARRAÑAGA (Optika, Optometria eta kontaktologia) J. Carlos Guerra 1 943 79 29 95
- PORTALOI OPTIKA (Optika, Optometria eta kontaktologia) Erdiko kale 10. 943 79 65 56

ORTOPEDIA

- ORTO LAGUN ORTOPEDIA Kontzezino, 2 943 79 89 34

OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

- UDALAITZ MEDIKU-ZENTRUA (Analisi klinikoak, R-X) Ferrerías, 56-Behea 943 79 44 22

OSTEOPATIA

- NEREA BENGUA (Bizkarreko minak eta lunbalgiak) Azoka kalea, 4 659 58 66 89

PODOLOGIA

- ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA Erdiko kalea 54, behe eskuma 943 79 97 46


PSIKOLOGIA

- LANDER GARMENDIA Obenerreka 2, 7H 943 79 35 86
- PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA Ignacio Zuloaga,10 943 79 48 77
- TXOMIN NUÑEZ Olarte, 10 943 79 88 16

UROLOGIA

- LLUCH, ALBERTO (Centro Médico Udalaiz) Ferrerías, 56. 943 79 44 22

Edertasun gida



ILE APAINDEGI MISTOA

iaran

Zerrajera 1.
Tel.: 943 79 81 79

Orduetgia: 09:30-12:30 14:30-19:30 / Barikuetan ez dugu etenik egiten eguerdian
zapatuak: 08:00-14:00

JADE
ILE APAINDEGIA

Maalako Errabala 21-B
ARRASATE
Tel.: 943 77 16 31

ILE APAINDEGIA

virginia.L

MISTOA

Lapurdi 3. Zigarrola.
ARRASATE
Tel.: 943 79 65 65



AUSART

Ile apaindegi mistoa
Estetika zentroa
Txaro Carrizo

Iturriotz kalea 24. Tel.: 943 77 30 60
943 77 21 58

ILE APAINDEGIA

ILEA
UNISEX

Ferrerias 14 - 943 79 87 62

Lore

Olarte 10 • ARRASATE • 943 79 52 50
Lurrindegia eta estetika zentroa

KORA ÑEAL Ajeer HR CLARINS BIOTHERM VALMONT

